

Txostenaren helburua:

Udal artxiboan pertsona berriren bat lanean hasten bada jakin beharrekoak jasotzen duen txostena.

Zerbitzuko ordutegia:

- Neguan: 8:30etatik 13:30ak arte
- Udan: 8:00etatik 15:00ak arte

Kontaktua:

- e-posta: artxiboa@bergara.eus
- Telefonoak: 943779132 / 943779127

Artxiboa Udaleko antolaketan

Artxiboa Udaleko organigraman Kulturaren egon da urtetan zehar.

Gaur egungo legegaldian (2019-2022) egindako berrantolaketaren ondorioz 2020tik aurrera Artxibo zerbitzua Antolakuntza arloan dago.

Artxiboko funtzioak

Zerbitzuaren funtzioak zeintzuk diren eta aurrera eramateko egiten diren jarduerak azalduko dira.

1. Artxiboak **dokumentuen kudeaketa sistema** eratzeko, kudeatzeko eta mantentzeko funtzioa du.

Informazioa: P:\PL_0500_Dokumentuen_kudeaketa\Deskripzioa\PL_0500_FITXA_00_b02p.doc

Sistemak dituen azpiprozesuak:

- Saillapena
- Deskripzioa
- Balioeste eta xahutzea
- Kontserbazioa
- Sarbidea

Horretarako sortutako materiala:

- Bergarako Dokumentuen Kudeaketarako eskuliburua
- Dokumentuen eta espedienteen metadatuaren eskuliburua
P:\PL_0500_Dokumentuen_kudeaketa\Informazio_lagungarria\Udal_politikak\Dok_esp_Eskuliburua_01_eu_20150909.doc
- Saillapen kuadroa. Saillapen kuadroan Udal funtzioak eta horren ondorioz egiten diren eginkizunak identifikatzen dira

2. Artxiboak, **ondare dokumentala** gordetzeko, kontserbatzeko, ezagutzera emateko eta kontsultagarri jartzeko funtzioa du.

Ondarearen sarrera (dokumentuak, argazkiak, bideoak) bi modutakoa izan daiteke:

- A. **Ohikoa eta berezkoa:** Udal Departamentuetatik espedienteak itxi ondoren Artxibora bidaltzen dira. Horretarako prozedura:
- a. Departamentuak bidalketa orria bete eta artxibora bidaltzen du.
Bidalketa orrian jasotzen diren datuak:
 - Departamentua
 - Arduraduna
 - Bidalketaren data
 - Kaxa edo erregistro kopurua
 - Espedientearen hasiera eta bukaera data
 - Deskripzioa
 - Sailkapena
 - Aurkibideak
 - Euskarria
 - Kaxa zenbakia
 - b. Departamentuaren eta Artxiboaren artean transferentzia noiz egin adosten da
 - c. Artxiboan bidalketa jaso eta kudeatu ondoren ontzat ematen denean bidalketa orria sinatuta bueltatzen da.
- B. **Dohaintza:** Erakunde, enpresa edo pertsona ezberdinak egiten dituztenak. Norbait dohaintza bat egitera datorrenean, lehenengo gauza materiala begiratu eta baloratzea da, interesa duen ala ez jakiteko. Horretarako gutxieneko inbentario egin eta balorazioa txostenarekin Osoko bilkurara bidaltzen da erabakia hartu dezan.

Goian aipatuta funtzioak betetzeko artxiboko eginkizunak eta horren ondorioz sortzen diren serieak:

SAILKAPENA		SERIEAK	
Kodea	Eremua	Kodea	Seriea
101C	Udal gobernua. Organo osagarriak	AS31	Akta liburua: Ondarea eta Turismoa
		AS32	Bilkuren espedienteak: Ondarea eta Turismoa
102A	Erregelamendu, Ordenantza eta Araudia	ARAP	Departamentuan araudi proposamenen lanketa
102C	Erregelamendu, Ordenantza eta Araudia. Prozedura eta errekursoak	AR01	Arauk hausteagatik egindako zehapenak
103B01	Antolaketa administratiboa. Koordinazioa. Normalizazioa	NR00	Departamentuan inprimakien normalizazioa
103C	Antolaketa administratiboa. Dokumentuen eta informazioaren kudeaketa	AS04	Dokumentuak balioesteko eta xahutzea
		AS05	Dokumentuen transferentzia egiteko irizpideak finkatzea
		AS06	Espurgoa

SAILKAPENA		SERIEAK	
Kodea	Eremua	Kodea	Seriea
		AS07	Kontserbazio egutegiaren onarpena
		AS08	Xahututako dokumentuen erregistroa (inbentarioa)
		KD00	Departamentuan dokumentuen Kudeaketa
103D02	Antolaketa administratiboa. Euskara. Udaleko hizkuntzaren garapena	EN00	Departamentuan euskararen normalkuntza
103E	Antolaketa administratiboa. Informazio sistemen kudeaketa (IKT)	IK00	Departamentuan IKTen kudeaketa
103G	Antolaketa administratiboa. Departamentuetako kudeaketa	AA02	Txosten teknikoak
		AS01	Artxiboko materialen digitalizazioaren programazioa
		AS02	Artxiboko materialen eraberritzeko programazioa
		DKUT	Departamentuko urteko txostena
		PL00	Departamentuan urteko Kudeaketa Plana
		SKDL	Dirulaguntza eskaera (udalak eskatuta)
103H	Antolaketa administratiboa. Genero ikuspegia udala administrazioan	GU00	Departamentuan Genero Berdintasunaren kudeaketa
104A	Kudeaketa ekonomikoa. Aurrekontu orokorraren osaketa eta onarpena	KEUA	Departamentuan urteko aurrekontuaren kudeaketa
104F	Kudeaketa ekonomikoa. Sarrerren kudeaketa	SK00	Departamentuan diru sarrerren kudeaketa
104G	Kudeaketa ekonomikoa. Kontratazioa	EKEE	Erosketa espedientea
		EKKO	Kontratazio espedientea
106A	Giza baliabideak. Langilegoaren egitura, hornidura eta irteera	GBLE	Departamentuan pertsonalaren kudeaketa
106B	Giza baliabideak. Lan baldintzak, formakuntza eta disziplina erregimena	GBLB	Departamentuan pertsonalaren formakuntza
107A01	Kanpo harremanak. Herritarrekin komunikazioa	KH00	Eskaerak, kexak eta iradokizunak
311A	Artxiboa. Sistema garatzea	AS09	Udal departamentuetako bulego artxiboen antolaketa
311B	Artxiboa. Kultura eta ondare balioen	AS21	Artxiboko bisita gidatuak

SAILKAPENA		SERIEAK	
Kodea	Eremua	Kodea	Seriea
	hedapena	AS22	Artxiboko dokumentu ondarea erabiliz hezkuntzarako material didaktikoa egitea
		AS23	Artxiboko ekintza kulturalak
		AS24	Artxiboko web orriko edukien kudeaketa
		AS25	Ikerketa historikoen argitalpena
		AS26	Ikerketa historikoak egiteko laguntzak
311C	Artxiboa. Bildumaren kontserbazioa	AS13	Artxiboko deposituaren kontrola
		AS14	Artxiboko tokiaren kudeaketa
		AS15	Artxiboko materialen digitalizazioa
		AS16	Ondare dokumentala zaharberritzea
311D	Artxiboa. Bildumaren kudeaketa	AS17	Artxiboan jasotako transferentziak
		AS18	Artxiboan jasotako dohaintzak
		AS19	Artxiboan sartutako dokumentuen erregistroa (inbentarioa)
		AS20	Artxiboko dokumentuak sailkatzea eta deskribatzea
311E	Artxiboa. Bildumaren erabilera	AS10	Dokumentuen kopia eskaerak
		AS11	Artxiboko materialen kontsulta
		AS12	Artxiboko materialen mailegua
311F	Artxiboa. Erabiltzaileen kudeaketa	AS27	Artxiboko erabiltzaileen alta
		AS28	Artxiboko erabiltzaileen baja
		AS29	Artxiboko erabiltzaileen datuen aldaketa
		AS30	Artxiboko erabiltzaileen erregistroa

Artxiboan sortzen diren espedienteak kudeatzeko bergara_esped_menu FileMaker-eko data-basea erabiltzen dugu.

Ezagutu beharreko legeria eta araudi teknikoak

Legeria orokorra artxiboentzako:

1. 16/9185 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa.
2. 7/1990 Legea Euskal kultur ondareari buruzkoa.
3. 30/1992 legea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
4. 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa.
5. 232/2000 Dekretua Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena.
6. 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa.
7. 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Elkarreragintasan Eskema Naziola arautzen duena.
8. 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Segurtasun Eskema Naziola arautzen duena Administrazio Elektronikoaren eremuan.
9. 19/013 legea, azaroaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
10. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoetako Administrazio prozedura.

Araudi teknikoak:

1. ISAD (G)
2. ISAAR
3. ISDF
4. ISO 15489: 2006. Dokumentu-kudeaketa
5. ISO 23081: 2011. Dokumentuak kudeatzeko metadatuak
6. ISO 30300: 2011. Dokumentuak kudeatzeko sistema
7. OAIS protokoloa
8. NEDA (Normas españolas de descripción archivística)

ARTXIBOKO EKIPAMENDU ETA BALIABIDEAK

1. Giza baliabideak

Artxiboan bi pertsona gaude lanean: artxibozaina eta administraria.

2. Diru baliabideak

Artxiboko diru baliabideak udaleko aurrekontuetan kontsultatu daitezke. Artxiboaren lanarekin zerikusi duten ohikoak diren dirulaguntzak bi izaten dira. Bata, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak artxibo sistema jartzeko edo/ta sendotzeko ateratzen duena. Bestea, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak ondarea zaharberritzeko ateratzen duena.

3. Baliabide informatikoak

Ordenadore kopurua: 3

- Sistema operatiboa: 2 windows7 eta 1 windowsXP
- Eskanerra

- Kanpoko disko gogorrak: 2
- Fotokopiagailua: Udaleko beheko solairuan dagoena
- Aplikazio informatiko diferenteak
 - a. FileMaker datu-basea: 2 FileMaker14 (windows7 behar du) eta 1 FileMaker12
 - b. Eskanerraren software-a
 - c. Irudien trataerarako: Photoshop (bertsioa zahar bat) eta Irfanview (debalde)
 - d. FamilyTree: genealogiarako aplikazioa
 - e. Grabazioetarako software-a

4. Leku baliabideak eta ezaugarriak

Artxibo zerbitzuak San Martin plazatik sarrera zuzena du. Artxiboan kontsulta gela, batzar edo taldeko lanak egiteko mahaia, materiala gordetzeko gela, bulego bat eta depositua daude.

- Grabatzeko kamerak jarrita daude kontsulta gelan eta gela orokorrean.
- Artxiboak gorde behar dituenak, hau da, dokumentu, argazki eta bideoak deposituan gordetzen dira.

Kabitzen ez direnak:

- a) goian materiala gordetzeko gelan daude: argazkiak
- b) Errekalde jauregiko ganbarako zati batean: Movilla eta Narvaiza enpresa artxiboak Depositua sotoan dago eta dokumentuak modu egokian gorde ahal izateko gertatuta dago.

Honek dira ezaugarriak:

- Temperatura eta hezetasuna kontrolatzen dira aire egokituarekin
- Suteen kontrako detektagailuak eta alarma daude
- Sua itzaltzeko sistema
- Uholdeen kontrako detektagailua dago
- Sabaia pintura berezi batekin pintatuta dago
- Ateak suaren aurkakoak dira. Kanpotik sartzeko giltza behar dute eta barrutik zabaltzeko berriz ez.

Deposituan 8 metro libre gelditzen dira

ARTXIBOAN GORDE ETA KUDEATZEN DITUGUN FONDO ETA BILDUMAK

Udal artxiboan gordetzen ditugun fondo eta bildumak:

A. Artxibo publikoak

1. Udal fondoak.

1.1. Azpifondo historikoa

1268-1924 (152 m lineal)

1268an herria sortu zenetik 1924 arte Bergarako Udalak bere funtzioetan sortu edo jasotako dokumentazioa

Historia administratiboa:

Begarako herria Alfontso X.a Jakintsuak sortu zuen, Gasteizko Foruan oinarriturik, 1268ko uztailaren 30ean Sevillan emandako pribilegioaren bidez. XIV. mendean zehar, Oxirondo eta Uzarragako elizateetako biztanleak herriko bizilaguntzat hartu zituzten. 1629an, Uzarragako Elizatea Bergarako herritik banandu eta hiribildu--forua lortu zuen; Oxirondoko elizateak 1630ean bereizteko egin zuen saiakerak, ordea, ez zuen arrakastarik izan. Bergaran, gainera, zuzen-zuzeneko eragina izan zuten Konbentzio Gerrak, Independentziaren Gerrak eta bi Gerrate Karlistek. 1928an Angiozar eta Ubera auzoak, ordura arte Elgetakoak, Bergarara batzen dira. Gerra zibilean zehar, 1936ko irailetik aurrera, plaza honetan Komandantzia Militar bat egon zen, Intxortako frentearen egoerari baldintzatuta..

Zaintzaren historia:

1500/10/10ean egin zen inbentarioan, artxiboa San Pedro parrokian zegoen. 1689an bi lekutan banatuta zituen Kontzejuak artxiboak: San Pedron eta Udaletxeko etxeetan. Badakigu 1849ko abenduan herriko artxiboa San Pedron zegoela. 1855eko ekainaren 14ko erabakiaren bidez, San Pedron zeuden artxiboko paperak eta eskribauen etxeetako gainerako agiriak Udaletxearen alboko eraikinera eramatea erabaki zen. 1857an artxiboa berriro San Pedrorara eraman zen. Lokalaren egoera txarra ikusita, ospitale zaharrera eraman zen artxiboa 1859an. 1867an Zaharren Etxera eraman zen, ospitale zaharra bota egin behar baitzen. 1981ean

Epaitegiko eraikineko beheko solairuan zegoen artxiboa eta Errekalde jauregira eraman zen. Ospitaleko dokumentazioa ere iritsi zen hara. Udaletxeko ganbaran ere bazegoen, itxuraz, dokumentazioren bat, baina 1985ean bota egin zuten. 1989an Errekalde jauregian zegoen artean Udal Artxiboa; udaletxea zaharberritzeko hustu zenean, beheko solairuko gela batean eta bulegoetan gordetako dokumentazioa artxibora bidali zen. Azkenik, 1995ean Udaletxeko eranskin berrian kokatu zen artxibo zerbitzua.

Antolaketa:

Azpifondo historikoa antolatzeke Serapio Múgicak egindako sailkapen koadroa erabili da. Koadro hori batez ere tematiko-funtzionala da eta Euskal Herri osoan erabili izan da 1924 arte; 1924ko Udal Estatutua izan zen Toki Administrazioan inflexio puntua.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Deskribapen -tresnak:

Une honetan inbentarioa eta dokumentu jakin batzuen hustuketak (batez ere Akta liburuak eta kontzejuko erregistroak) kontsultagarri daude, artxiboan bertan nahiz artxiboko web orrian.

Aurkibide onomastiko eta toponimikoak inbentarioaren osagarriak dira.

Oraindik antolatu gabe dauden antzinako agirien aurkibide topografikoa ere badago.

Kontsulta eskuragarri dago Udal Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>) eta

Dokuklik datu basean: (<http://www.snae.org>)

Iturri osagarriak artxiboan bertan:

Azpifondo administratiboa.

Bibliografia:

CRESPO RICO, Miguel Angel; et al. Colección documental del Archivo Municipal de Bergara. Tomo I (1181-1497). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995. (Fuentes Documentales medievales del País Vasco, 57). ISBN: 84-87471-82-X.

LEMA PUEYO, Miguel Angel. Colección documental del Archivo Municipal de Bergara. Tomo II Fondo municipal, subfondo histórico (1335-1520). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007. (Fuentes Documentales medievales del País Vasco, 133). ISBN: 978-84-8419-137-7

MARTINEZ DIEZ, Gonzalo; Emiliano GONZALEZ DIEZ; Felix J. MARTINEZ LLORENTE. Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas (1200-1369). Donostia: Juntas Generales de Gipuzkoa, 1991. ISBN: 84-7907-068-4.

1.2. *Azpifondo administratiboa*

1924-.... (handitzen)

Begarako Udalak bere eginkizunen jardunean 1924tik aurrera sortu edo jasotako dokumentazioa

Antolaketa:

Egiten. Udal Artxiboen Antolakuntzarako lan-mahaiak landutako Udaletako Fondoak Sailkatzeko Koadro Proposamena ari gara erabiltzen

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Iturri osagarriak artxiboan bertan:

Azpifondo historikoa

2. Bergarako eta barrutiko komandantzia militarra

1841-1845 (5 erregistro) *Zaintzaren*

Historia:

Begarako Udal fondoan sakabanatuta agertu dira. Egindako lehenengo urratsa ekoizlea identifikatzea izan da.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, salbu-eta indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan.

Hizkuntza: Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Deskribatzeko daude

3. Bergarako auzitegi-barrutiko eta eskualdeko justizia gastuei aurre egiteko Mankomunitatea

1886-1959 (59 erregistro)

Begarako epaitegiko gastuei egiteko sortutako dokumentazio ekonomikoa da. Barruti-judiziala osatzen duten udalerrian artean ordaintzen dira. Hori dela eta, honexek aurkitu ditzazkegu: aurrekontua egiteko zirriborroa, Batzordearen onarpena, udalerrri bakoitzak ordaindu behar duena zehaztuta (urtero kalkulatzeko da ekonomia adierazle batzuk kontutan hartuta; hala nola padroiak, kontribuzioak...), hiru hilabetetako kontuak eta aurrekontuaren kitapena. Korrespondentzia, oso gutxi, ere badago.

Historia administratiboa:

Mankomunitatea, auzitegi-barrutiko udalerriek osatzen dute. Bergarako Alkatea da lehendakaria, Bergara delako auzitegi-barrutiko buru. 1886ko martxoaren 12ko Errege Dekretuak dionez barrutiko kartzela eta herrietako kartzelak mantentzeko aurrekontuak batzordean eztabaidatu eta onartuko dira. Probintziako batzordeak emango dio behin-betikoko onarpena. Udalerrri bakoitzak ordaindu behar duena, bakoitzak udal aurrekontuetan sartuko du. Bergarako Alkateak hiru hilabetez behin kuota eskatzen die eta barrutiko buru diren herriek dirua aurreratuko dute. Kasu honetan Bergarak, hain zuzen ere.

1886ko Errege Dekretua onartu baino lehen, barrutiko buru ziren herriek aurrekontuak egiten zituzten eta Batzorde Probintzietara bidaltzen zituzten onartzeko. Probintziak ziren kuota kobratzen zituztenak.

1944ko Udal Justiziarako legean eskualdeko epaitegiak sortzen dira. Hori dela eta, alde batetik kartzelako mantenurako gastuak auzitegi-barrutiko udalerriek egingo dute eta bestetik eskualdeko epaitegiko udalerriek justizia administrazioko gastuak ordainduko dituzte. Hala eta guztiz ere, dokumentazioa batera dago.

Auzitegi barrutiko udalerriek: Antzuola, Aretxabaleta, Eibar, Elgoibar, Elgeta, Eskoriatza, Legazpia, Arrasate, Mutriku, Oñati, Soraluze, Gatzaga, Bergara, Urretxu eta Zumarraga dira. Eskualdeko udalerriek: Antzuola, Elgeta, Soraluze eta Bergara dira. 1953an Legazpia, Urretxu eta Zumarraga gehitzen dira.

Legeria:

Botere judizialeko Lege organikoa, 1870/09/15.

Udalek, barruti-judizialeko kartzelarako eta udal kartzelen mantenurako Errege Dekretua, 1886/03/12 (Madrileko Gazeta, 72 zenbakia, 1886/03/13koa).

Udal Justiziarako Legea, 1907koa.

Udal Justiziaren oinarriak arautzen duen Legea, 1944/07/19.

Antolaketa:

Begarako Udal fondoan sakabanatuta agertu dira. Egindako lehenengo urratsa ekoizlea identifikatzea izan da.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza: Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Unitate dokumental bakoitzaren deskripzioa eginda dago.

Iturri osagarriak Artxiboan bertan:

Begarako udal fondoko aurrekontuak izeneko azpisekzioa. Udal aurrekontuetan kartzela gastuak agertzen dira.

4. Bergarako barrutiko lehen auzialdiko epaitegia

1816 - 1897 (114 erregistro)

Urtetan zehar, eskualdeko edo barrutiko justizia erakundeari buruz ari gara; izen ezberdinekin eta funtzio aldakorrekin izandakoa, alegia. Herri mailako justizia administrazioa baino (Alkate, bake epaitegi, udal epaitegia) maila bat goragokoa da.

Orokorrean dokumentazioa oso zatituta dago. Epaitegian izandako epaiketen erregistrorik ez dago, eskribautza jakin batzuen erregistro bakarra gorde da. Auzi batzuk, osoak edo zatiak, badaude; sailkapenean auzi zibilen eta zigor arloko auzien arteko banaketa egin da. Horretaz gain, borondatezko jurisdikzio egintzak ere aurkitu daitezke (lekukoen informazioaren akta).

Historia administratiboa:

Cadizeko Konstituzioko V. kapituluak, botereen arteko banaketa ezarri nahi zuen. Bertan, Erregimen berrirako justiziaren antolaketarako ildoak azaltzen ziren. Justizia administrazioa herritarrek gertu izan zezaten, Espainia osoan epaileak jartzeko asmoa zuten; epaile maila desberdinak zeuden. Gorenakoa, Auzitegi nagusia zen, hurrengo maila Audientziak ziren, hurrengo berriz lehen auzialdiko epaitegiak eta azkenik bake epaitegiak edo udal epaitegiak. Gipuzkoan, barruti judizialak martxan jarri arte, lurralde osorako epaile bakarra izendatu zen. Baian 1814ean, antzinako gobernu sistemara bueltatzerakoan, aipatutako lurraldeko epailea bertan behera gelditu zen; Tolosan zuen egoitza.

1820an Cadizeko Konstituzioa berriz indarrean jarri zenean, Gipuzkoan ere lehen auzialdiko epaitegiak berrezarri ziren. Azkoitiako Alkatea, Korregidorea ere bazen eta Diputazioa bertan zegoenez, izan zen lurraldeko epaile, arduraduna zena Iruñako audientziara joan zelako.

Iruñako Audientziako aginduz, Diputazioak lurraldea barruti judizialetan banatu zuen. Horretarako Udalei iritzia eskatu zitzairen eta azkenean hiru barruti judizial onartu ziren: Donostia, Tolosa eta Bergara.

1821ko ekainaren 18ko Errege Aginduaren bitartez Bergarako barrutiko behin-behineko epailea izendatu zuten: Vicente Antonio de Oquendo zen. Eta hurrengo egunean auzitegia zabaldu zen.

Urte bereko urriaren bukaeran Jose Churruca izendatu zuten epaile.

Begarako epaitegiko barrutia 22 herriz osatuta zegoen, (37.583 pertsonaz) : Antzuola,

Aretxabaleta, Azkoitia, Deba, Eibar, Elgoibar, Elgeta, Eskoriatza, Ezkio, Gabiria, Itxaso, Arriaran, Legazpia, Arrasate, Mutriku, Oñati, Ormaiztegi, Soraluze, Gatzaga, Bergara, Urretxu eta Zumarraga. Epaiketarik Udaletxeko aretoan egiten ziren.

Antolaketa judizial honek gutxi irauten du, 1823ra arte, frantsesak sartu zirenen arte.

Antolaketa judiziala berriz aldatzen da 1835ean, nahiz eta 1841era arte martxan ez ipini karlista gerratea zela medio. Karlista gerra bukatzean, 1839an, Korregidorea lehen auzialdiko epaile bakarra izaten jarraitu zuen 1841ko otsailaren 23ra arte, Bergarako barrutirako beste epaile bat izendatu zenean; martxoaren 30ean hasi zen lanean.

Aurrerago, 1841ko urriaren 20ko Errege Aginduak Gipuzkoan beste barruti judizial bat sortu zuen. Beraz, Gipuzkoa 4 barruti judizialetan banatuta gelditu zen: Donostia, Tolosa, Bergara eta Azpeitia.

Begarako barruti judizialeko herriak honexek dira: Antzuola, Aretxabaleta, Eibar, Elgeta, Eskoriatza, Legazpia, Arrasate, Mutriku, Oñati, Soraluze, Gatzaga, Bergara, Urretxu eta Zumarraga. Bergarako barruti judizialerako epailea Jose Perez del Notario izendatu zuten apirilaren 24ko Korregidorearen gutun baten bidez. Eta Pablo Gorosabel ordura arteko behin-behineko Korregidorea kendu zuten. Korregidorearen esku zeuden auziak lehen auzialdiko epaitegietara pasatzeko aginduta. Azkenik, 1841ko urriaren 29ko Errege Dekretuaren bitartez Euskal lurraldeen justizia antolaketa Estatu mailan erabiltzen den bera ezarri zuten. Aurrerago, Bergaran, epaitegia, kartzela eta eskola jartzeko eraikin berria egin zen. 1870ko botere judizialeko behin-behineko lege organikoa onartzen denean, hain zuzen. Lege horren arabera barruti bakoitzak zirkunskripzio ezberdinetan banatzen zen, eta bakoitza instrukzio epaile baten ardurapean, sumarioak egin zitzaizkion. Barruti bakoitzean hiru epailez osatutako auzitegia sortu zen; auzi zibiletarako lehenengo auzialdia zen eta zuzenketa-zigorretarako berriz osoko auzitegiko auzialdi bakarra zegoen.

Borondatezko jurisdikzioa udal-epaileekin partekatzen zuten (eskuduntza diferenteekin) eta udal-epaileek hitzeko epaiketetan emandako epaitzetarako apelazioetarako agintea zuten. Barruti judizialeko epaitegi horiek, 1835ean sortutako barruti judizialeko epaileek ordezkatu behar zituzten. 1870ko irailaren 30eko Aginduaren arabera barrutietako auzitegiak martxan jartzen ziren bitartean euren funtzioak lehen auzialdirako epaileek egingo zituztela; gauzak horrela, barrutiko eta instrukzioko epaileek zigor-arloko auziak epaitzen jarraitu zituzten eta bigarren auzialdiko apelazioak Audientzietara pasatzen ziren. Egia esateko, auzitegiak ez ziren inoiz sortu.

Aipatutakoaren ondorioz, 1882ko urriaren 14ko gehigarrian lehen auzialdiko epaileez hitz egiten zuen eta instrukzio epaileen eskuduntzak ematen zizkietenez, lehen auzialdiko eta instrukziorako epaitegiak deitzen zaizkie.

Legeria:

Konstituzioa, 1812koa, V. kapitulua (1812/11/27ko Gazetan argitaratua).

Audientziak eta lehen auzitegiak antolatzeko legea, 1834ko apirilaren 21ekoa.

Barruti judizialak sortzeko Errege Dekretua, 1835ko irailaren 26koa.

Euskal lurraldeen justizia antolaketa Estatu mailan erabiltzen den bera ezartzeko Errege Dekretua, 1841ko urriaren 29koa.

Botere Judizialaren behin-behineko Lege Organikoa, 1870ko irailaren 18koa. Barruti judizialak martxan jarri arte, euren funtzioak lehen auzialdiko epaileak egiteko Agindua.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren gehigarria, 1882ko urriaren 14koa.

Zaintzaren Historia:

Begarako udal fondoan sakabanatuta agertu dira.

Antolaketa:

Lehenengo banaketa bi sekziotan egin da: bata, justizia administraziorako eta barne antolamendurako diren dokumentuak jasotzen dituen, eta bestea berriz, arlo juridikokoak dira. Azkenengo hau 6 serietan banatu da: erregistroak, auzi zibilak, zigor arloko auziak, borondatezko jurisdikzio egintzak, jarduketak eta desamortizatutako ondasunen salmenta espedienteak.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza:

Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioa eginda dago.

Iturri osagarriak beste artxiboetan:

Epaitegietako artxiboak (Bergaran, Iruñan)

5. Notario barrutia

1526-1868. Muturreko datak aipatutako unitate-dokumentalei dagozkie. Pilaketa-da: 1868 (198 erregistro)

Alde batetik dauzkagu eskritura solte, protokolo edo protokolo-aurkibide batzuk, Bergarako notaritza-barrutiko herrietakoak direnak (honako herrietan zeuden notario-bulegoak: Bergara, Eibar, Elgoibar, Eskoriatza, Oñati, Arrasate, Zumarraga); eta beste alde batetik aurkitu ditzakegu Hipoteka Kontularitzan finkatzeko zeuden eskrituren kopiak.

Historia administratiboa:

Notariotza:

XIX. mendean hainbat neurri ezarri ziren "Ministerio de Gracia y Justicia" izeneko ministerioaren menpe zeuden artxiboak kontserbatu eta antolatu zitezten; eta artxibo horien artean, Protokoloenak zeuden. 1862ko Notariotzaren Lege Organikoarekin, behin betiko sortu ziren Protokolo Notarialen Artxiboak. Lege honek ezarritakoaren arabera, Lurralde Audientzia bakoitzean eskritura publikoen artxibo nagusi bat egon behar zen, eta bertara bidali behar ziren lurralde horietan zeuden notaritza-bulegoetako 25 urtetik gora zuten protokolo guztiak. 1867/12/31ko Errege Aginduak ezartzen zuenez, notario guztiak notaritza-bulegoan zituzten protokoloen inbentario bat egin behar zuten eta Elkargoko Batzordera bidali. Sei hilabeteko epea eman zieten; horrexegatik, Bergarako udal artxiboan gordetzen diren zerrenden data 1868ko maiatzekoa da.

Protokoloei buruzko xedapenak ez zirenez bat ere bete, 1869ko urtarrilaren 8ko Lege Dekretua ezarri eta lurraldeko artxibo nagusiak kentzea erabaki zen, eta horien ordean Barruti Notarial bakoitzean artxibo nagusiak sortzea, hogeita hamar urtetik gorako erregistroekin. Notariotzen mugaketa aldatu egin da urteen poderioz; lehenengo mugaketa 1866/12/28an ezarri zen, Notariotzaren konponbide berrirako

Errege Dekretuarekin. Bergara Burgoseko audientziaren menpe zegoen; eta zazpi notario-bulego hartzen zituen: bi Bergaran, eta bana osterantzeko udalerritan: Eibar, Elgoibar, Eskoriatza, Oñati, Arrasate. 1874an, mugaketa notarial berria ezarri zen. Bergarako barruti notariala harrezkero Iruñeko Elkargo Notarialari egokituko zitzaion, eta honako udalerrri hauek hartzen zituen: Eibar, Elgoibar, Eskoriatza, Oñati, Bergara eta Zumarraga (udalerrri bakoitzeko notario-bulego bana).

Hipoteka-ofizioa:

Hipoteken Ofizioak edo Kontularitzak 1768ko urtarrilaren 31n sortu ziren, data horretako Errege Pragmatikari esker. Horren helburua zen ondasun higiezinaren eskualdaketei buruzko erregistro- eta publizitate-sistema bat finkatzea, horrela ekidin ahal izateko ordura arte gertatzen ziren iruzur pila, etxeen eta lurren gaineko kargak eta hipotekak ezkutatu nahian eragindakoak. Pragmatika horrek agintzen zuenez, barruti-buru ziren herrietan Hipoteken Ofizioak ezarri behar ziren, bakoitzari zegokion udaleko eskribauaren ardurapean. Pragmatikan ezartzen zenez, kargaren edo hipotekaren bat zuten ondasunen jabari-eskualdaketa suposa zezaketen eskritura publikoen gainean erregistroak egin behar ziren, non haien datu garrantzizkoenak jasoko ziren (data; notarioa; emaileak; finkaren izena, kokapena eta mugak; eragiten zioten kargak). Erregistro-idazpenak herriz herri banatu behar ziren, eta pietatezko dohaintzei ere eragiten zieten.

1774an, otsailaren 26an, Gaztelako Kontseiluaren Zirkularrak xedatu zuenez, 1768an baino lehen emanak ziren eta zentsuak edo hipotekak zituzten eskritura notarial guztiak inskribatu beharra zegoen; horrexegatik aurkitu ditzakegu liburu hauek XVI. eta XVII. mendeetako eskriturei buruzko oharra.

Ondoren emandako beste xedapen batzuen eraginez, Hipoteken Eskubidearen gaineko Zergaren karga (Errege Eskubideen gaineko Zergaren aurrekaria) zuten eta higiezinak ziren eskualdaketa guztiak inskribatu behar izan ziren; dena den, kargarik gabeko ondasunei ere eragin zieten, eta baita zergarik gabeko beste egintza batzuei ere, hala nola herentziagatik higiezin-eskualdaketei edo edozein higiezinaren gaineko enbargo judizialei. Ildo honetatik, 1845eko ekainaren 15eko Errege Dekretu batek finkatu egin zuen erregistro hauen izaera fiskala, eta inskribatzeko sistema ere aldatu egin zuen; izan ere, dekretuak xedatu zuenez, harrezkero Kontularitzetako erregistro-liburuak finkaka eraman beharko ziren, eta ez kronologikoki, ordura arte eramaten zen moduan; horrela sortu ziren jabari-eskualdaketen liburuak.

1861eko Hipoteka Legeak, gaur egungo Jabetza Erregistroak erakundetu zituenak, sakon berritu zuen ondasunen eta kargen erregistro publikoen izaera; hain zuzen ere, bi kontzeptu horiek bi erregistro ezberdinetan inskribatzeko betebeharra xedatuz. Bikoiztasun horrek ez zuen luze iraun. Izan ere, 1869ko Erreforma Legeak hipoteka-erregistroak kendu egin zituen; eta harrezkero, jabetza-erregistroa bakarrik mantenduko da finkak eta horien kargak erregistratu eta inskribatzeko.

Legeria:

Notariotza:

1. 1862/05/28. Notariotzaren Lege Organikoa. 1862ko maiatzaren 28ko Notariotzaren Lege Organikoa, eskribauen fede emateko funtzio estrajudiziala eta judiziala bereizten dituena.
2. 1862/12/30. Notariotza eratzeke legea betearazteko Erregelamendu Orokorra.
3. 1866/12/28. Notariotzaren konponbide berrirako Errege Dekretua.
4. 1867/12/31. Errege Agindua, protokolo-artxiboak ezarri eta antolatzea (mugaketa notariala).
5. 1869/01/08. Lege Dekretua, lurraldeko artxibo nagusiak kendu eta barruti-buru notarial bakoitzean artxibo nagusiak sortzen dituena.
6. 1874/11/09. Dekretua, Notariotza antolatzeke eta araubidetzeko Erregelamendu Orokorra onartzen duena. (Mugaketa notarial berria).

Hipoteka-ofizioa:

1. 1768/01/31. Errege Pragmatika, Hipoteken Ofizioa edo Kontularitza sortzen duena.

2. 1774/02/26. Gaztelako Kontseiluaren Zirkularra, 1768an baino lehen egindako zentsu eta hipoteka guztiak inskribatzeko betebeharra ezartzen duena.
3. 1821/05/26. Gaztelako Kontseiluaren Zirkularra, barruti-buru diren herri guztietan hipoteka ofizioa egon behar dela ezartzen duena.
4. 1829/12/31. Dekretua, "hipoteka-eskubidea" izenekoa ezartzen duena.
5. 1836/10/17. Errege Agindua, hipoteka-ofizioen ardura duten idazkariei buruzkoa.
6. 1838/12/03. Errege Agindua, herri guztiak inskripzioak egitera haien barruti judizialera joan beharra dutela xedatzen duena.
7. 1843/02/14. Errege Agindua
8. 1844/07/04. Agindua.
9. 1844/10/07. Agindua, indarrean dauden xedapenak betearaztekoa.
10. 1845/05/23. Errege Agindua, hipoteka-eskubidea ezartzeko eta kobratzeko oinarriak ezartzen dituena.
11. 1861/02/28. Hipoteka Legea.
12. 1869. Hipoteka legea berritzeko legea.

Zaintzaren historia:

Jakin badakigu notariotzako dokumentazioak eta udalarenak toki bera partekatzen zutela. 1867ko abenduko dekretuaren eraginez, Bergarako udalak hainbat pertsonari enkargatu zien notario-agirien antolakuntza. Elgetako Juan Kruz Andikoetxea Gerra jaunak 1790etik 1837ra arteko protokoloen ardura hartu behar izan zuen (protokolo horiek Lorenzo eta Jose Maria Elizpuru jaunen aurrean pasatu ziren). Eta protokoloek honela omen daude: enkoadernatu gabe, orrialdetu gabe, eta dokumentu batetik bestera urte ezberdinetan kokatuta, hau da, araurik gabe ("*se hallan sin encuadernar ni foliar y colocadas en distintos años de un documento a otro, es decir, sin regla*"). 1892an, Juan Kruz Andikoetxeak berak eskaini zuen bere burua artxiboa txukuntzeko, betiko ohituren arabera eginda eta batere aurkibiderik gabe omen dago-eta ("*abezado y falto de índices*").

1868an, jakin badakigu hainbat protokolo eta pleito udalaren paperekin nahastuta zeudela, hiribilduko artxiboan era egokian jartzen eta gordetzen ziren paperekin alegia ("*mezclados y confundidos con los papeles de la villa conservados y colocados regularmente en el archivo de ella*"); baina bertan jarraitu zezatela erabaki zuten, orduko notarioa zen Luis Gonzaga Lesarrik ezin zituelako jaso.

1881ean, Epaitegiak Udalari lokal bat eskatu zion protokoloen artxiboa izateko; 1897an, Juan Francisco Aspiazu jaunak –notarioa eta barruti notarialeko delegatua eta artxibozaina zenak– artxiborako lokal bat eskatu zuen protokoloak egokitu ahal izateko. Udalak erabaki zuen epaitegiko ganbaran artxiboa izateko zegoen tokia handitu zezatela.

Antolaketa:

"Barruti notariala" izeneko fondo bat sortzea erabaki dugu; ageri-agerian udalarena ez den dokumentazioa ondo bereizteko.

XIX. mendeko eskribauek garatzen zituzten eginbeharrak dira dokumentuok hemen aurkitzeko arrazoia. Eskribaua bera izan zitekeen udal idazkaria, idazkari judiziala, notarioa eta hipoteka ofizioaren arduraduna. XIX. mendean zehar, marko juridiko berri batek betebeharrak guzti horiek bereizten joan zen, eta profil profesional berriak sortzen. Horri esker, erakunde berriak sortu ziren, bakoitzak bere artxibo-sistemarekin.

Bergaran, gainera, artxibo-toki bakar bat zegoen, non udaleko, epaitegiko eta eskribautzetako agiriak gordetzen ziren, "bat eginda eta nahastuta". Horrenbestez, gure ustez bereizketa ere ez zen zuzen egingo.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Hizkuntza: Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioa egiten ari gara.

Beste artxibotako iturri osagarriak:

Bergarako notariotza

Gipuzkoako protokoloen artxibo historikoa <http://oinati.gipuzkoakultura.net/eu.html>

6. Bergarako Errege Seminarioa

1513-1920 (19 metro lineal)

Historian zehar eraikin honetan izan diren ikastetxeek sortu edo jasotako dokumentazioa:

- Jesusen Lagundia (1593-1767)
- Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea (1769-1804)
- Estatua (1804-1873)
- Domingotarrak (1880-1994)

Ikastetxe bakoitzaren espedienteak dira: ikasleak, kalifikazioak eta azterketak, ematen ziren ikasgaiak, irakasleak, ekintza osagarriak, barnetegia eta ikastetxearen administrazioa

Historia:

1593ko martxoaren 30ean San Pedroko Kabildoak, herriko Kontzejuak eta Aita Gonzalo de

Avila Gaztela Zaharreko Jesusen Lagundiaren buruak sinatutako akordioaren bidez, Jesusen Lagundiaren Irakaskuntzako Ikastetxea jarri zen. Eta 1767 arte iraun zuen, urte hartako apirilaren 2ko Errege Pragmatikaren bidez jesulagunak kanporatu arte, hain zuzen ere. Orduan, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte sortu berriak interesa azaldu zuen eraikina eskuratzeko eta

Karlos III.a erregeak, 1769ko abuztuaren 19ko Errege Zedularen bidez, elkarte horri utzi zizkion

Jesusen Lagundiarena izan zen etxea, eliza eta eraikina, bertan ikastetxea jar zezan. 1804ko uztailaren 23ko Errege Aginduaren bidez, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea kendu egin zuten ikastetxearen zuzendaritzatik eta Estatuko Ministerioaren eskuetara pasa eta Nobleen Errege Seminarioa deitu zen. 1810ean Jose I.ak "Liceo Vascongado" izena jarri zion eta urtean

400.000 erreal izendatu. 1814an, Fernando VII.arekin, berreskuratu egin zituen izena eta maila. 1822an, abenduaren 1eko Errege Agindu baten bidez, Probintziako Unibertsitate izendatu zuten, baina 1823an galdu egin zuen izaera hori eta Nobleen Errege Seminario gisa jarraitu zuen. 1845eko irailaren 17ko Errege Aginduaren bidez, Bigarren Hezkuntzako Gipuzkoako Goi mailako Institutu izendatu zuten Seminarioa. Oinarri horrekin, 1848ko abuztuaren 30eko Errege Aginduaren bidez Matematika Eskola ireki zen eta geroago, 1850eko irailaren 4ko Errege

Dekretuaren bidez, Industri Eskola ezarri zen. Bigarren Hezkuntzako Institutuak eta Industri Eskolak establezimendu bakarra osatu zuten, Errege Seminario Zientifiko Industrialia izenarekin, 1851ko martxoaren 24ko Errege Aginduaren bidez. Egoera horrek iraun zuen 1860ko urriaren 1eko Errege Aginduak Industri Eskolak kendu zituen arte. Azkenean, Sustapen Ministerioaren 1873ko azaroaren 28ko Aginduz, Gipuzkoako Institutua Donostiara eraman zuten. Eta Bergarako eraikina hutsik geratu zen, 1880an Domingotarrak sartu ziren arte.

Zaintzaren historia:

Fondo hau Seminarioko eraikinean gorde izan da. Eraikina gerra garaian hartuta egon zen: frantziarren kontrako gerran eskolak eten egin ziren 1794ko azaroaren 17tik 1798ko urtarrilera bitartean; Lehen

Karlistadan (1835-1839) ospitale militar gisa erabili zen; Bigarren Karlistadan zentroa itxi egin zen 1872 eta 1873an. 1880tik aurrera Domingotarrak egin ziren eraikinaren kargu, usufruktudun gisa. Fundoa bertan egon zen, 1985ean Udalaren jabetzako Errekalde jauregira eraman arte. Behar izan ziren apalategiak Irigoien Patronatuak ordaindu zituen. 1995ean Udaletxeko eraikinean kokatu zen Udal Artxiboa eta bertara eraman zen.

Antolaketa:

1985ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Udalaren eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen laguntza bati esker, Udal Artxibora eramandako dokumentazioaren aurkibide topografikoa egin zen. 1992-1993an, Irigoien Patronatuaren beka baten bidez fondoaren sailkapena eta deskripzioa egin zen.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Deskribapen-tresnak:

BERGARA LARRAÑAGA, Elixabete. Inventario del fondo del Real Seminario de Bergara.

Bergara: Ayuntamiento; Donostia: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 1994 Inventarioaren kontsulta eskuragarri Udal Artxiboan bertan, Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>) eta dokuklik datu basean: (<http://www.snae.org>).

Iturri osagarriak artxiboan bertan:

Usandizaga Batxilergoko Institutuaren Fundoa
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen fundoa

Iturri osagarriak beste artxiboetan:

Arabako Foru Aldundiaren Artxiboko Prestamero fundoa
Eusko Legebiltzarreko Araba fundoa
Gipuzkoako Foru Aldundiko Urkijo fundoa

Salamanca San Esteban komentuko Domingotarren Artxiboa

Jesusen Lagundiak Azpeitiko Loiola Santutegian duen fundoa Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean Peñaforida Konteen fundoa

Bibliografia:

Bicentenario del aislamiento del wolframio: homenaje a los hermanos Elhuyar = Wolframioa isolatzearen bigarren mendeurrena (1783-1983): Elhuyar anayen omenetan. San Sebastián Donostia, Bergara, 1983.

CABALLER VIVES, M^a Cinta; GARAIZAR AXPE, M^a Isabel; PELLON GONZALEZ, Inés. El

Real Seminario Científico e Industrial de Vergara, 1850-1860. En Lull, vol. 20, 1997, 85-116.

CABALLER VIVES, M^a Cinta. Alumnos hispanoamericanos y filipinos en el Real Seminario Científico e Industrial de Vergara (1850-1860). En Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, LIV, 1, 1998.

LARRAÑAGA ELORZA, Koldo. Las manifestaciones del hecho ilustrado en Bergara. Bergara: Udala, D.L. 1991

LOPEZ DE LETONA, Carlos; RIERA PALMERO, Juan. Nuevos documentos del socio de la Bascongada Fausto de Elhuyar en México (1789). En Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, LIV, 1, 1998.

MARTINEZ RUIZ, Julian. Filiación de los seminaristas del Real Seminario Patriótico

Bascongado y de Nobles de Vergara. San Sebastián: R.S.V.A.P., 1972

PELLÓN, Inés; GAGO, Ramón. Historia de las Cátedras de Química y Mineralogía de Bergara a finales del siglo XVIII: incluyendo un informe inédito de Fausto Elhuyar sobre las minas de Aralar. Bergara: Ayuntamiento, D.L. 1994.

RECARTE BARRIOLA, M^a Teresa. Ilustración vasca y renovación educativa: la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Salamanca: Universidad Pontificia; R.S.B.A.P., 1990.

Bibliotheca Salmanticensis Estudios 133

SILVÁN, Leandro. Los estudios científicos en Vergara a fines del siglo XVIII: el químico Luis José Proust. Donostia-San Sebastián: R.S.B.A.P, 1992. Colección Ilustración Vasca. T. V.

ZUMALDE, Iñaki. Archivo del Real Seminario de Bergara. I Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País: ponencias y comunicaciones. San Sebastián: R.S.B.A.P., D.L. 1959, pág. 481-485

7. Usandizaga Institutua

1787 -1929 (9,9 metro lineal).Bergarako Errege Mintegia eta Bigarren Hezkuntzako Goi Mailako Gipuzkoako Institutua (1873ra arte). Jose M^a Usandizaga Batxilergo Institutua.

Probintziako Institutua Donostiara eraman zenean, pentsatzekoa da eguneroko jardunerako behar zuten dokumentazioa ere eraman egingo zutela, batez ere informazio ekonomikoa eta idazkaritzakoa, matrikula, ikasle eta espediente akademikoen berri edukitzeko .

Historia administratiboa:

1845eko irailaren 17ko Errege Aginduaren bidez, Bigarren Hezkuntzako Gipuzkoako Goi mailako Institutu izendatu zuten Seminarioa. Oinarri horrekin, 1848ko abuztuaren 30eko Errege Aginduaren bidez Matematika Eskola ireki zen eta geroago, 1850eko irailaren 4ko Errege

Dekretuaren bidez, Industri Eskola ezarri zen. Bigarren Hezkuntzako Institutuak eta Industri Eskolak establezimendu bakarra osatu zuten Errege Seminario Zientifiko Industrialaren izenarekin, 1851ko martxoaren 24ko Errege Aginduaren bidez. Egoera horrek iraun zuen 1860ko urriaren 1eko Errege Aginduak industri eskolak kendu zituen arte. Azkenean, Sustapen Ministerioaren 1873ko azaroaren 28ko Aginduaz, Gipuzkoako Institutua Donostiara eraman zuten. Eta Bergarako eraikina hutsik geratu zen, 1880an Domingotarrak sartu ziren arte.

Zaintzaren historia:

Sustapen Ministerioak 1873ko azaroaren 28an emandako Aginduaren bidez, Bigarren

Hezkuntzako Probintziako Institutua (1845eko irailaren 17ko Errege Aginduaren bidez Bergaran sortua) Donostiara eman zen. Geroago Peñafloreda Kondea Institutu Mistoaren izena eman zioten. 1964an bitan zatitu zen: gizonezkoenak izen berarekin jarraitu zuen, eta emakumezkoenari geroago Jose Maria Usandizaga Batxilergo Institutua izena eman zitzaion. 1987tik aurrera misto bihurtu zen.

Nola eskuratu den:

Begarako Errege Seminarioa eta Bigarren Hezkuntzako Goi mailako Institutua izeneko azpifondoaren dohaintzaren bidez (1997eko otsailaren 17ko Udalbatzarra).

Antolaketa:

"Begarako Errege Seminarioa" eta "Bigarren Hezkuntzako Gipuzkoako Goi mailako Institutua" azpifondoa ondorengo ataletan dago antolatuta: korrespondentzia, ekonomi administrazioa, matrikulak, azterketak, egiaztagiriak eta bestelako agiriak.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza:

 Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Jose María Usandizaga Batxilergo Institutuaren artxibo historikoaren katalogo bat dago. Kontsultagarri dago Bergarako Udal Artxiboan bertan, bere web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>).

Iturri osagarriak Artxiboan bertan:

Bergarako Errege Seminarioko Fondoa.

Iturri osagarriak beste artxiboetan:

Usandizaga Institutuko artxiboa (Donostia)

Bibliografia:

MENDIOLA, Rufino. Los estudios en el Real Seminario de Vergara. Vergara, 1961

CABALLER VIVES, María Cinta; GARAIJAR AXPE, Isabel; PELLON GONZALEZ, Inés. El Real Seminario Científico e Industrial de Vergara, 1850-1860. Lull, vol. 20, 1997, p. 85-116.

8. Islada Bideogela

105 bideo-zinta (Beta eta VHS) digitalizatuak (DVD)

- “Bideo gela” eraman zuten pertsonak eta enpresek egindako materialak (Amaia Labaien, “Klip”; Amaia Labaien eta Elsa Manso “Iasa”; Amaia Labaien “Islada bideo tailerra”).
- Antzerki-talde batzuen sustapen-bideoak.
- Tailerretako ikasleek egindako bideoak.
- EITBri eta RTVERi erositako emanaldi-kopiak. EITBren eta RTVERen emanaldien etxeko kopiak.

Nola eskuratu den:

“Bideo gela” zerbitzua emateari utzi zitzaionean (1992), bertan gelditu ziren materialak Kultura Departamentuak transferitu zituen (2004).

Dokumentuak kontsultazeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Hizkuntza:

Euskaraz eta gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Bideo bakoitzeko deskribapena egin da.

B. Artxibo pribatuak

1. Enpresa artxiboak

1.1. *Unión Cerrajera de Mondragón (UCEM), Bergarako lantegia*

1899 -1989 (168 m. lineal)

Unión Cerrajera de Mondragón (UCEM) . Bergarako lantegia

Gordetako dokumentazioa 1930 eta 1963 urteen artekoa da; fondoaren % 97,5 urte horien artekoa da. Garai horren aurretik gorde diren bakarrak kontabilitate-liburuak (nagusia eta egunerokoa) eta soldaten erregistro-liburuak besterik ez dira. Garai horren ondoren, berriz, honako dokumentuak agertzen dira: nominak, planoak (makinenak eta instalazioenak) eta 1963an plantilla berriz baloratzeko egin zuten azterketa eta txosten batzuk. Oso esanguratsua da nolako banalerro garbia ikusten den dokumentazio berri hau agertzerakoan; izan ere, orduan, eraldaketa sakoneko garaian sartu zen enpresa. Zailagoa da arrazoitzea 1930 inguruan dagoen mugalerroa, hau da, zergatik egin zuen gora bat-batean garai horretatik aurrera agiriaren kopurua. Tipologiaz, informazio-bolumen handienaren jatorria korrespondentzia da; alde

batetik, korrespondentzia komertziala, bezeroekin, hornitzaileekin (katalogo batzuk daude) edo erakundeekin (bizi-bizia izan zen gerra zibiletik aurrera eta diktaduran zehar, enpresak jasan zuen militarizazioagatik), eta beste aldetik barneko korrespondentzia (Arrasateko zentroarekin zutena). Azpimarratzekoa da, baita ere, kontabilitate-gestioak ematen duen informazio oparoa, bai kontu-liburuetan (nagusiak, egunerokoak, idazpen-erregistrokoak, tailerretako gastuak eta materialen kostuak jasotzekoak), bai langileen nominetan (nominen erregistro liburuak eta nomina-kopiak). Kopuruz gutxiago dira industria jarduera berak sortutako agiriak. Honela bana daiteke mota honetako dokumentazioa: ekoizpenaren kontrola (ekoizpenari eta material-gastuei buruzko txostenak, Arrasatera bidaltzen zirenak), biltegiko erregistroa (izakinen eta eskabideen liburuak eta orriak) eta makineria eta instalazioei buruzkoa (altzairutegiko makineria eta Bergarako fabrikako instalazioak eta lursailak jasotzen dituzten planoak, landare paperean egindakoak eta ferropirusiatok eta paperean kopiatutakoak). Badago beste dokumentazio-multzo txiki bat ere pertsonalaren kudeaketari buruz (liburuak eta langileen zerrendak, lanpostuak baloratzeko txostenak, aurreikuspeneko erakundeekin izandako korrespondentzia eta parte medikoak). Azkenik, esan behar da ia ez dagoela inolako informaziorik zuzendaritzari buruz (korrespondentzia pertsonalen bat izan ezik), ez eta sozietatearen ondareari buruz. Hau ulertzeko kontuan hartu behar da Arrasate zela zentro zuzentzailea.

Historia:

Unión Cerrajera lantegiaren aurrekariak 1869. urtera arte doaz. 1869an, Jose Vergarajauregui eta Jose Maria Resusta jaunek, Arrasaten, *Vergarajauregui, Resusta y Compañía* sozietatea sortu zuten. Ekimen horren arrakasta hasiera-hasieratik agertu zen, kapital-ekarpen berriak egin eta inguruko beste lantegi batzuk eskuratu baitzituzten (1887 inguruan *Txakolin* tailerra, eta 1890ean *Hijos de Echeverria y Compañía*). Instalazioetarako makina modernoak ekarri zituzten, aprobetxamendu hidraulikorako zentralak eraiki zituzten, eta ekoizpena bi alor zehaztuetan dibertsifikatu zuten: fundizioa eta sarrailagintza; ordurako antzematen dira jadanik etorkizunean enpresaren ezaugarriak izango direnak: auto-horniketarako joera, eta industria integrala izatea. Azkenik, *La Cerrajera Guipuzcoana* enpresarekin batzen denean (enpresa hori lehiakide zutena izateko sortua izan zen 1901ean), *Sociedad Anónima Unión Cerrajera* enpresa sortzea ahalbidetuko da 1906an. Hazkuntza indartsu horren inguruan eraikiko da, 1900. urtean, Bergarako lantegia. Hasiera-hasieratik lantegiaren xedea izan zen altzairua ekoiztea eta produktu erdi landuak sortzeko eraldatzea, hala nola, zumitzak ijetzea (laminatzea) eta txapa eta profilak fabrikatzea; horrela, Arrasateko zentroa hornitzen zen eta han manufakturak egiten zituzten. Horretarako, makineriako azpiegitura gero eta handiagoa izan zuen: lau labe Siemens, altzairua galdatzeko; bi labe garai, Siemens labeak elikatuko dituen burdina ekoizteko; arbustu-trena, altzairu-totxoak egiteko; zumitzen ijeketa-trena; txapa meheen trena; profilen trena; eta makineria osagarrietan, oso aukera zabala (besteak beste, birberotzeko labeak, mahai jasotzaileak, profilen zuzengailuak eta askotariko motoreak). Bestetik, bertako instalazioek, azpiegitura hori guztia euren baitan hartzen zihozten instalazioek, azkenean benetako poligono industrial bat osatu zuten, honako elementu hauekin: labe garaiak, galdatzeko industria-nabeak, txaparako eta ijeketarako pabiloiak, tailer mekanikoak, bulegoetako eraikina, biltegiak, hondakindegia, txatar-biltegia, ikaztegiak, turbinak, argindar-azpiestazioak eta trenbide-linea bat. Industrialde handi honen ondoan, gainera, enpresak oso laster kolonia bat eraiki zuen honako elementuekin: eskola txikia, kapera, ekonomatoa eta etxebizitza-bloke batzuk. Hirurogeiko hamarkadan aldaketa sakoneko garai bat hasiko da. Aldaketon artean, honako hauek azpimarratu ditzakegu: 1969an txapa ekoizteari laga zioten, 1963tik aurrera instalazio berriak eraikiko dituzte, 1965etik aurrera etengabeko galdaketa (kolada) ezarriko da, eta 1965 - 1977 urteen artean lau labe elektriko jarriko dira. Altzairutegi berria, behin Unión Cerrajera desagertu eta Corporación UCEM sortzen denean, Aristrain taldean sartu zen 1987an, Altos Hornos de Bergara izenarekin; 1998an, berriz, Aceralian sartu zen; eta Aceralia 2001etik aurrera Arcelor taldean dago sartuta.

Zaintzaren historia:

1989an egindako txostenaren arabera, Unión Cerrajerako Bergarako lantegiko artxiboa kaperan zegoen gordeta. Hortik, agiri batzuk lehengo jangelako geletara eraman zituzten, eta orduan aurkibide topografiko bat egin zuten horretarako kontratatu zituzten bi lizentziatuk. 1994an dohaintzaren bidez eman zuten fondoa. Lehenengo, Udal Artxiboak Errekalde jauregian zituen geletara eraman zen, eta gero, 1995ean, Udaletxera bertara. Hemen, aurkibide topografikoaren arabera, signaturak jarri zitzaizkien instalazio-unitateei. Urte horretan bertan, Eusko Ikaskuntzarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, aurkibidea eta signatura berriak alderatu ziren eta fondoaren inbentario orokor bat egin zen.

Nola eskuratu den:

Udalari egindako dohaintzaren bidez, 1994ko irailaren 26ko udal erabakiaren arabera *Hazkundea:*

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.. *Antolaketa:*

Fondoaren antolaketak hasierako garaian irizpide funtzionala agertzen du; funtzionaltasuna ikusten da bai korrespondentzia komertziala antolatzeko hurrenkeran, bai artxiboko material berezia erabiltzean (karpetak eta sailkatzeko gailuak), *Unión Cerrajeraren* filiala zen *Roneo* etxeak fabrikatua, alegia. Sailkapen-koadroan dagoen dokumentazioa hiru ataletan egituratu da:

- Jarduera industrialia (Ekoizpena, Hornitzaileak, Bezeroak, Institutzioak eta Erakundeak).
- Kontabilitatea (Orokorra, Lagungarria, Banketxeak, Nominak) eta
- Pertsonala (Plantilla, Laneko Segurtasun eta Higienea, Lan Harremanak, Gizarte-ekintza).

Honako serieak daude zehaztuta, alderdi tematikotik, antolagarritik edo tipologikotik duen koherentziagatik: Korrespondentzia, Katalogoak, Kontabilitate Liburuak, Tailerretako Liburuak eta Nominak.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza:

Orokorrean, gazteleraz dago. Dokumentu batzuk ingelesez, frantsesez eta alemanez.

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioaren kontsulta eskuragarri dago Udal Artxiboan bertan, Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>), edo Dokuklik datu-basean (<http://www.snae.org>).

Iturri osagarriak artxibo honetan:

Ahozko artxiboa, langile batzuek orduko informazioa emateko transkribapena da (1996).

Bibliografia:

IBÁÑEZ, M.; ORTEGA, A.; SANTANA, A.; ZABALA, M.: *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergara, 1994

AGUIRRE, I. El valle del Deva: estudio de geografía urbana e industrial. Madrid 1987.

1.2. Eguren tailerra

1918 -1995 (4 m. lineal)

Eguren tailerraren dimentsio ekonomikoari erreparatzen badiogu - ez zuen dozena erdi langile baino gehiago izan -, uler dezakegu neurri handi batean horren eraginez dela txikia fondoaren bolumena ere. Tailerreko jarduerak iraun zituen 75 urteetan zehar sortutako dokumentazioa homogeneouski agertzen da banatuta. Eta dokumentuen tipologiari ere erreparatuz gero, agiri gehienak dira fakturak, izandako korrespondentzia, bezeroekin, hornitzaileekin, bankuekin (kontuen egoerak eta jarduketan egiaztagiria), erakunde eta instituzioekin (bereziki, Gipuzkoako Produktoreen Ligarekin), eta pertsonala kudeatzetik

eratorritako dokumentazioa (kontratuak, altak eta bajak emateko parteak eta aurreikuspeneko erakundeekin izandako korrespondentzia).

Historia:

Eguren tailer mekanikoa bat dator familiako enpresa txikiaren ereduarekin; makineria industrialia fabrikatu eta konpontzen zuten. Gregorio Eguren Unanue jaunaren ekimen pertsonalari esker jarri zen martxan. 1921ean baimena eskatu zion Bergarako Udalari bere etxebizitzaren ondoan tailer bat eraikitzeko Simon Madariagak egindako proiektuaren arabera. Dena den, 1917rako agertzen da matrikula industrialeko erregistroetan jarduera garatzen. Hasiera-hasieratik, inguruko ehungintza oparoaren eskaerari erantzungo dio produkzioak. Aitzindaria izan zen, hain zuzen ere, ehunak tindatzeko Jigger makinak jartzeko orduan. Horrekin batera, nekazaritzarako makinak ere egin zituen: birringailuak, errotak eta bazka ebakitzeko gailuak. Enpresa-sortzailea hil zenean, alargunak eta seme-alabek hartu zuten negozioa eta, batez ere, Ignacio Eguren Lasagabasterrek; honek zuzendu baitzuen enpresa mende bukaerako urteetan itxi zen arte.

Nola eskuratu den:

Dokumentazioa jabeek Udalari lagapenez eman zioten 2004an.

Hazkundera:

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.

Antolaketa:

Sortze-garaian fondoak ez du izan ia inolako antolaketarik; izan ere, dokumentazioaren atal batzuk zeharo desordenatuta daude. Horrenbestez, dokumentazio hori deskribapen-mailan instalazio-unitate gisa hartu da eta, beraz, berrikusi egin beharko da gerora. Sailkapenkoadroak hiru sekzio nagusi ditu: Jarduera industrial, Kontabilitatea eta Pertsonala.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza: Gaztelera

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioaren kontsulta eskuragarri dago Udal Artxiboan bertan edo Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>).

Iturri osagarriak artxibo honetan:

Begarako Udal Artxiboa, Udal Fondoak, C/0023-001 eta C/0093-048.

Bibliografia:

IBÁÑEZ, M.; ORTEGA, A.; SANTANA, A.; ZABALA, M.: *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergara, 1994

1.3. Narvaiza e hijos S.A.

1918 -2000 (100 m. lineal)

Fondo honetan gordetzen den dokumentazioa, gehien bat, oso gertukoa da, batez ere 1990etik ondorengokoa (% 85); 1975etik atzeragokoa oso gutxi da (% 1 bada ere). Banaketa honek argi erakusten du nolako eragina izan zuten artxiboaren osotasunerako 1983ko uholdeek eta, Deba arroan bereziki, 1988koek. Tipologiari erreparatuz gero, dokumentazio-bolumen handiena bezeroekin eta hornitzaileekin izandako harreman komertzialak sortu zuten: fakturak, erreziboak, albaranak, eskari-orriak, publizitate-orriak eta ordezkariekin izandako korrespondentzia. Hemen ere sartzekoak dira —enpresako administrariak eurek erabiltzen zuten irizpideari jarraituz— administrazio publikoarekin eta erakunde eta instituzioekin zuten gestio zuzenaren ondorioz sortzen ziren dokumentuak: ofizioak, jakinarazpenak, formularioak, zigor-espeditentzarako, estatistikak eta txostenak. Beste atal garrantzitsu bat kontabilitatearena da eta, bereziki, banketxeekin egindako gestioaren inguruko dokumentazioa: jarduketan egiaztagiriak,

kontuen laburpenak eta mailegu-kontratuak. Epigrafe honen barruan sartzen da, baita ere, fakturen multzoa eta nominen liburuak eta erregistroak. Bolumen gutxiago du pertsonalari buruzko dokumentazioak; batez ere, espediente pertsonalak eta mutualitateko gaiak dira: parte medikoak eta lan-aurreikuspeneko entitateekin izandako korrespondentzia. Bukatzeko, bada dokumentu-multzo bat, trinkoa eta jatorritik ondo bereizia: batez ere, eskriturak dira, enpresako gerentziak egindako jarduketaren ingurukoak.

Historia:

Jatorrian Narvaizaren aurrekaria XX. mendearen hasieran kokatzen da, Miguel Alcorta

Gorosabel eta Jose Jeronimo Azcarate jaunek *Alcorta y Azcárate* sozietatea sortzerakoan. 1920an *Alcorta y Compañía* bihurtu zen, eta horretan Arturo Narvaiza Salsamendi sartu zen bazkide gisa. Arturo Narvaizak alor honetan eskarmentua zuen; izan ere, oso era aktiboan hartu zuen parte *Sobrino de Fernández y Compañía* enpresan (gero *Movilla S.A.* izango zena). Arturo Narvaizak berrogeigarren hamarkadan sozietatea erosi eta harrezkero *Arturo Narvaiza e Hijos Sucesores de Alcorta y Compañía* izango da. 1956an, Narvaiza Orbe anaien zuzendaritzapean, behin betiko izena hartu zuen: *Hijos de Arturo Narvaiza S.A.* Izena gorde egingo du, *Hilaturas de Vergara* enpresarekin batu ondoren, *Narvaiza S.A.* izendapen sozialaren pean, zeharo kitatua izan arte 2002. urtean.

Zaintzaren historia:

Fondoa Udal Artxibora ekartzeko, inbentario orokor bat egin zen eta instalazio-unitateei signaturak esleitu zitzaizkien.

Nola eskuratu den:

Enpresa kitatu ondoren, artxiboa Udalari pasatu zitzaion Udalbatzak 2005eko apirilaren 24an onartu zuen hitzarmenaren bitartez.

Antolaketa:

Narvaizako dokumentuen fondoa antolatzeko orduan, sortze-garaian enpresako administrariak aplikatu zuten irizpen funtzional bat antzematen zaio, gutxienezkoa baina sistematikoa. Irizpen horri esker, fondoa errazago egokitu da aukeratutako sailkapen-koadrora, eta ezarritako serie dokumentalak ere errazago onartzen dira. Sailkapen-koadroa lau sekziotan egituratu da:

- Zuzendaritza (Eraketa eta Gerentzia, Ondarea).
- Jarduera industrial (Ekoizpena, Hornitzaileak, Bezeroak, Institutioak eta Erakundeak).
- Kontabilitatea (Orokorra, Lagungarria, Banketxeak, Nominak) eta -Pertsonala (Plantilla, Laneko Segurtasun eta Higienea, Lan Harremanak).
- Gaiaren eta antolaketaren aldetik oso koherenteak direnez, honako serie hauek agertzen dira zehaztuta: Eskriturak, Hornitzaileak, Bezeroak, Kontabilitatezko Liburuak, Nominak, Banketxeak eta Espediente Pertsonalak.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza:

Orokorrean gazteleraz dago. Dokumentu batzuk ingelesez, frantsesez eta alemanez.

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioa kontsultagarri dago Udal Artxiboan bertan edo Artxiboko web orrian

(<http://bergarakoartxiboa.eus>). **Bibliografia:**

IBÁÑEZ, M.; ORTEGA, A.; SANTANA, A.; ZABALA, M.: *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergara, 1994

1.4. *Movilla S.A.*

1897-2003 (13 m. lineal)

Kopuru aldetik begiratuta, Movilla fondoan gordetako dokumentazioak ez du islatzen sortze garaian benetan izango zuen dimentsioa. Kronologikoki era uniformean banatuta egon arren, baditu informazio-hutsune batzuk ageri-agerian: ez dago kontabilitateko dokumentaziorik, ezta korrespondentzia komertzialik ere bezero eta hornitzaileekin, eta pertsonalari buruzko dokumentazioa ere oso urria da. Isilune hauen zergatia, ziur aski, 1954an lantegiak jasan zuen sutea izan daiteke eta baita, zalantzarik gabe, 1988ko uholdeek Deba arroan eragin zituzten kalteak ere, enpresa hau gogor jo baitzuten. Horretaz gain, gertuko urteetan sortutako dokumentazioari buruz, beste isilune bat ere badago, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik; izan ere, isilunea 1976tik hona handia da, baina 1992tik hona zaharokoa. Dokumentuen tipologiari dagokionean, fondoan hiru jarduera-eremu bereizi dira eta horien inguruan artikulatzen da: Kopurutsuena jarduera industrialetik bertatik eratorritako dokumentazioa da: eskuliburuak, makinak instalatzeko eta mantentzeko gidak eta jarraibideak, ekoizpenaren erregistro-liburuak, marken erregistroen ziurtagiriak, ehunen erakusgaiak, eta tarifa-prezioak zehazteko foiletoak. Beste dokumentu-multzo garrantzizkoa gerentziari eta ondarearen administrazioari buruzkoa da. Bi dokumentu-tipok osatzen dute: Alde batetik, eskriturak, hau da, eratzeko, ahalordetzeko eta, batez ere, ondasunak sal-erosteko eskriturak. Eta beste aldetik, proiektuak, hau da, instalazioak eraikitzeko edo berritzeko proiektuak. Eta bereizitako hirugarren taldean, bakar-bakarrik, soldaten erregistro-liburuak sartu dira. Bukatzeko, badago beste dokumentu-multzo txiki bat, pertsonala kudeatzerakoan sortutakoa: pertsonalaren erregistro-liburuak, lan-araudiak, produktibitatearen azterlanak, ziurtagiri eta parte medikoak, eta aurreikuspeneko entitateekin edo erakunde sindikalekin izandako korrespondentzia.

Historia:

Gregorio Fernández Alonso jaunaren ekimenez sortu zen enpresa 1897an. Gregorio Fernandez jatorriz gasteiztarra bazen ere, XIX. mendeko laurogeiko hamarkadan jadanik Bergaran zegoen, tindatzeko lantegi bat baitzuen. 1897an, Valentín Movilla Fernández ilobarekin batera, "Gregorio Fernández y Sobrino" sozietatea sortu zuen. Hasierako urteetan, propietate asko erosi zituzten ("Caminpe" lursaila 1899an, Aduorta lursaila eta bi finka 1902an, Lazpiur baserria 1905ean, eta Lazpiur errota 1907an), ur-aprobetxamenduak eskatu zituzten (Antzuola erreka eta Galartza erreka 1902an, eta Sarriola, Garolecua, Chimillo eta Ansola erreka 1904an; denak ere argindarra sortzeko), eta berritzelanak egin zituzten (1902an Bergarako Udalari baimena eskatu zion instalazioak handitzeko, Kataluniako Juan

Rubió Bellué jaunaren proiektuaren arabera; eta 1905ean, makinaren eraikina egiteari ekin zion, Candelario Amiano jaunak egindako obra-proiektuari jarraituz). Enpresak arrakasta zuenez eta kapital-beharrak asetzeko bazkide berriak sartu behar zirenez, sozietateak aldaketak izan zituen bata bestearen atzetik (*Sobrino de Fernández y Compañía* 1916an, *Manufacturas Fernández S. L.* 1923an, *Movilla Fernández y Compañía* 1931n). Behin betiko eraketa 1964an osatuko du, *Movilla S.A.* izenarekin. Eta izen berarekin iraungo du 2004. urtean itxi arte.

Zaintzaren historia:

Fondoa Udal Artxibora ekartzeko, inbentario orokor bat egin zen eta instalazio-unitateei signaturak esleitu zitzaizkien.

Nola eskuratu den:

Udalari egindako dohaintzaren bidez, 2005eko urtarrilaren 31ko udal erabakiaren arabera.

Antolaketa:

Fondoa aktibo zegoen garaian dagokionean, ez da antzeman inolako antolaketa-zantzurik .

Sailkapen-koadroa lau sekziotan egituratu da:

- Zuzendaritza (Eraketa eta Gerentzia, Ondarea).
- Jarduera industrial (Ekoizpena, Hornitzaileak, Bezeroak, Instituzioak eta Erakundeak).
- Kontabilitatea (Orokorra, Lagungarria, Banketxeak, Nominak) eta
- Pertsonala (Plantilla, Laneko Segurtasun eta Higienea, Lan Harremanak).

Gaiaren eta antolaketaren aldetik duten koherentziagatik, honako serie hauek zehaztu dira: Makineria, Erakusgaiak eta Nominak.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik. *Hizkuntza:*

Orokorrean gazteleraz dago. Dokumentu batzuk ingelesez, frantsesez eta alemanez.

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioaren kontsulta eskuragarri dago Udal Artxiboan bertan edo Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>).

Iturri osagarriak artxibo honetan:

Bergarako Udal Artxiboa, Udal Fondona, C/023-001, C/094-015, C/094-16 eta C/094-17. *Bibliografia:*

IBÁÑEZ, M.; ORTEGA, A.; SANTANA, A.; ZABALA, M.: *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergara, 1994

1.5. *Textil Lasagabaster*

1905-1988 (8 metro lineal; 272 erregistro)

Fondo honen bitartez industrializazioan sakontzeko aukera dago, bereziki ehungintzan. Bergaran XIX. mendeko bukaeratik XX. mendeko 80ko hamarkadara arte sektoreak izandako garrantziaren lekuko da.

Jaso ditugun agiri gehienek kontabilitatea eramateko egindakoak dira: bezeroen fakturak (30 urtez egindakoak), biltegi sartutako lehengaien eta beste horniduren kontrola, beste lantegietara bidalitako materialen kontrol-liburuak (*San Antonio* edo *Tintes y Acabados de Vergara* enprekin tratamendu zehatz batzuk egitea azpikontratatzan zuten—), eta lanbide ezberdinengatik jasotzen ziren soldaten liburuak, bai ehungintzako lerroan (rodeterak, bihurritzaileak, iraztaileak —emakumezkoak—), bai tindategiko lerroan (tindatzaileak eta tolestatzaileak —gizonezkoak—); azpimarratzekoa da azken dokumentu hauek —batez ere ehungintzako lerroari buruzkoak— emakume langileen lekuko zuzenak direla. Erregistroetan, garaiko ikuspegi orokorra jasotzen da: laneko baldintzak (ordutegia, langileen aseguruak, emakumeen lana), ehungintzaren produkzioa (ehunaren tratamenduak, erabilitako produktuak) edo ehunaren banaketa (nora eta nola bidaltzen zen).

Historia:

Pedro Lasagabaster eskoriatzarra XIX. mendearen bukaeran etorri zen Bergarara; bertan hasiko da bere industria-jarduerarekin "Izurraderokoa"n, Hilaria Mugerzak lagatako tindategian eta hura ere bazkide komandataria izanik. 1914an ehungintzan ere hasiko da. Garai hartan lantegiak "*Tejidos, tintes y estampados Pedro Lasagabaster*" izena zuen. Lantegiak leku berean jarraitu zuen, orduan Ortuibar izenarekin azaltzen dena.

Urte batzuk geroago, 1925ean, lantegiak "*Textil Lasagabaster SL*" izena hartu zuen.

Sozietateko kideak hauek ziren: Pedro Lasagabaster, horren seme-alabak eta horren suhia Serafín Sañudo Abascal. 1931tik 1942ra arte, Pedro Lasagabaster eta Serafín Sañudo hil ondoren, lantegia Flora Lasagabasterren eskuetara pasatu zen eta ondoren haren alaba Mari Carmen Sañudoren eskuetara; hortik aurrera gizonezkoek zuzenduko dute. Etapa berri horretan, betiko jarduerarekin jarraitzeaz gain, "negozio-lerroa" zabaldu nahian inguruko beste lantegi batzuekin ere elkartu ziren. Horrenbestez, 1952an, *Narvaiza, Otazua, Aranzabal* eta "*Manufacturas San Lorenzo*"rekin "*Hilaturas Vergara SA*" sortu zuten. Aurrerago, 1964an, Claudio Ayastuy jaunarekin batera, *Janzkiola* enpresa eratu zuten laneko

jantzigintzarako. Azkenik, 1971n, "Algodonera San Antonio"rekin eta "Hijos de Arturo Narvaiza"rekin elkartu ziren "Tintes y Acabados de Vergara (TAVESA)" sortzeko.

1972tik aurrera, sozietate anonimo bihurtu zen, "Textil Lasagabaster SA" izenarekin, 1984an lantegia itxi egin zen arte. 1988. urtean kitatu zuten erabat.

Zaintzaren historia:

Udal artxibora ekartzeko, zerrenda orokorra egin zen eta agiriei behin-behineko signatura eman zitzaien.

Nola eskuratu den:

Lasagabaster-Sañudo familiaren dohaintza, 2016ko urtarrilaren 25eko Bergarako Udaleko Osoko Bilkuran onartutakoa.

Hazkundera:

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.

Antolaketa:

Fondoko agiriekin argi eta garbi azaltzen dute lantegiko bulegoetan erabiltzen zuten antolaketa administratiboa. Hori dela-eta, serieak identifikatu dira eta erabakitako sailkapen-taulan sartu dira. Sailkapen-koadroak lau sekzio ditu:

- Zuzendaritza (Eraketa eta Gerentzia)
- Jarduera industrial (Ekoizpena)
- Kontabilitatea (Orokorra, Lagungarria, Nominak)
- Pertsonala (Laneko segurtasuna eta higiena)

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, salbu-eta indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan.

Hizkuntza: Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioaren kontsulta eskuragarri dago Udal Artxiboan bertan.

Bibliografía:

IBÁÑEZ, M.; ORTEGA, A.; SANTANA, A.; ZABALA, M.: *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergara, 1994

DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA, *Mahoneros de Bergara*

<http://www.oficiostradicionales.net/es/industriales/mahoneros/condiciones.asp> [Disponible en línea; consulta realizada el 3 de diciembre de 2015].

ASOCIACIÓN INDUSTRIAL TEXTIL DE PROCESO ALGODONERO, *El mundo del algodón*

<http://www.aitpa.es/algodon.html> [Disponible en línea; consulta realizada el 3 de diciembre de 2015]

2. Elkarteen artxiboak

2.1. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea

1770-1793 (4 erregistro)

Elkarteko diru kontuak eta korrespondentzia dira.

Historia:

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarreak Bergarako Errege Mintegi famatua gobernatu zuen. Urte haietan Elkarteko batzar nagusiak, besteak beste, Bergaran egiten ziren eta gure herrian bazkide ugari bizi ziren.

Elkartea hiru sailetan zegoen banatuta: Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia. Sail bakoitzak bere lehendakaria eta diruzaina zuen. Horretaz gain zuzendari orokorra eta diruzain orokorra zeuden.

Zaintzaren historia:

Bergarako Udal fondoan sakabanatuta agertu dira. Egindako lehenengo urratsa ekoizlea identifikatzea izan da.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, salbu-eta indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan.

Hizkuntza: Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Deskribapena eginda dago

Iturri osagarriak Artxiboan bertan:

Bergarako Errege Seminarioaren Fondoa

Bergarako Udal fondoa.

Iturri osagarriak beste artxiboetan:

Arabako Foru Aldundiaren Artxiboko Prestamero fondoa

Eusko Legebiltzarreko Araba fondoa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Urkijo fondoa

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean Peñafiorida Kondeen fondoa Olaso familiaren fondoa

2.2. Bergarako Kultur Ekintza - Promoción Cultural Bergaresa

1948 -1995 (4,70 m lineal eta 4.032 irudi; 1.700 positibo, 3282 negatibo eta 323 diapositiba) Bergarako Kultur Ekintza lan-batzordetan antolatzen zen; hauexek zituen bere jarduera-eremu nagusiak: irakaskuntza (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, lanbide-heziketa, ertaina, eta gutxituena) eta kultur ekintzak (sustapena deituak).

Bigarren Hezkuntzako Institutua eta UNED ikastetxea sortzeko lanean partaide eta eragile izan zen. Hori lortzean, ahalegin handiagoa egin zuten kultur ekintzen antolakuntza bultzatzen: txistu ikastaroak, hitzaldiak, arte aplikatuak, zine kluba, erakusketak, euskara eskolak, marrazki eta margo lehiaketak, etab.

Kultur ekipamendua hobetzea ere bultzatu zuen: liburutegia, Seminarioko Natur Zientzien Museoa, Kultur Etxea edo Musika Eskola.

Ariz-ondo aldizkaria ere argitaratu zuen hiru garaitan: 1976-1977 bitartean 4 zenbaki; 1980-1981 urteetan beste 2 zenbaki; eta 1990-1994 urteen artean 45 zenbaki. Aldizkariaren bidez urte horietako herriko berri eta gai askoren informazioa jasota dago; Argazkien bidez herriko hainbat pertsonen eta jarduera kultural eta sozialen irudiak ditugu.

Historia:

Bergarako Kultur Ekintzaren sorrerako akta 17 bazkidek idatzi zuten 1967ko martxoaren 17an, kultura eta heziketaren arloa garatzeko helburuarekin. Estatutuei 1967ko martxoaren 31n eman zien oniritzia Gobernazio Ministerioaren Barne Politikarako Zuzendaritza Nagusiak. Elkartea 1994ko ekainaren 25eko Batzar Nagusian desegin zen.

Legeria:

- Elkariteei buruzko 1964ko abenduaren 24ko Legea.
- Irailaren 25eko 2423/1975 Dekretua, pertsona juridiko eta entitateen identifikaziorako kodea arautzen duena.

Zaintzaren historia:

Elkartearen sorreran, Lanbide Institutu Teknikoan eta Industri Maisutzako Lanbide Eskolan izan zuten behin behineko egoitza; geroago Zabalotegiko dorrearen beheko lokaletara joan ziren, eta azkenean Errotalde (Santa Ana) jauregira.

Nola eskuratu den:

Bergarako Kultur Ekintzaren dohaintzaren bidez, elkarte desegin zen unean (1995).

Hazkundera:

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.

Antolaketa:

Dokumentazioa behin-behineko sailkapen koadroari jarraituz dago antolatuta.

Elkarteak argitaratu zuen Ariz-Ondo aldizkariko (hirugarren garaian, 1990tik 1994ra arte) ateratako edo erabilitako argazkiak ere jasota daude.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioaren kontsulta eskuragarri dago Udal Artxiboan bertan edo Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>)

2.3. Kapirixo Elkarte

1993 -2003 (1,10 m. lineal)

Elkarteak 1993tik 2003ra arte funtzionatu zuen, baina ondarearen babeserako edo informaziorako interesgarria izan zitezkeen dokumentu edo argazkiak ere jaso zituzten; hori da, hain zuzen, 1993a baino zaharragoa den dokumentazioa izateko arrazoia.

Historia:

Kapirixo, Deba Garaiko Ondarea Babesteko Elkarte, 1993ko azaroaren 24an sortu zen, elkarte 9 partaidek osatzen dutelarik. Eusko Legebiltzarrak otsailaren 12ko 3/1988 legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Autonomia-Estatutuak 9. atalean dioenaren arabera sortutakoa da. Elkarte honek Bergarako Errege Mintegiaren etxean, San Martin Plazan, UNEDek darabilen etxaldean zeukan helbidea. Irabazte-xederik gabeko elkarte honen helburuak hauexek dira: Kultur Ondarea ezagutarazi eta bere onean eutsi, agiri-paperei iraurarazi, ikerketa babestu eta nazioarteko lankidetzak bultzatu. Helburu hauek lortzeko, hitzaldiak, erakusketak, biltzarrak eta argitalpenak egingo dira. Elkartearen Gobernu eta Administrazioa Bazkideen Batzar Orokorren esku eta, zuzendaritza-organo iraunkorra den aldetik, Zuzendaritza Batzordearen esku egongo dira. Elkarteak sarrera-ondararik ez daukanez, edukiko dituen dirubideak honako hauek izango dira:

- a) Zuzendaritza Batzordeak jarri ditzakeen bazkide-sariak;
- b) horrek erabaki ditzakeen aldizkako bazkide-sariak;
- c) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak; eta
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduerak zilegietatik datozen diru-sarrerak. 2003ko apirilaren 11n egindako Batzarrean, Kapirixo elkarteari bukaera ematea erabaki zen. Horren ondorioz, Batzar Orokorrek Zuzendaritza-Batzordeko hiru kidez osatutako Diru kontu-kitapenerako Batzorde bat izendatu zuen, egon litezkeen diru-ondasunak horren esku utzita. Elkarteak bazkideekin eta gainontzekoekin izan zitezkeen zorrak ordaindu ondoren gaidikinarik gelditu zirenez, Batzar Orokorrek elkarte honen ondasunak Udal Liburutegira, Udal Artxibora eta Bergarako Udalari dohaintzan ematea erabaki zuen.

Nola eskuratu den:

Dohaintza bitartez elkarte desegin zenean, 2003an.

Hazkundera:

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.

Kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza:

Euskaraz eta gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioa kontsultagarri dago Udal Artxiboan bertan edo Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>).

2.4. Bergarako Objeto Talde Antimilitarista

1987-2001 (ekoizpen datak; metatzeko edo biltzeko datak 1988tik 1997ra) (0,5 m. lineal)

Begarako Objeto Talde Antimilitarista fondo hau kontzientzia-objekzioa eta intsumisioa bultzatzeko egon den mugimenduaren lekukoa da, bai Bergaran, bai -taldea Kakitzat koordinadorearen kide izan zenez-Gipuzkoan eta Euskal Herrian.

Historia:

BOTA taldeak, bilerak egiteko, Udalaren lokal bat erabiltzen zuen Zabalotegi dorrearen behean.

Zaintzaren historia:

BOTA taldeak Zabalotegi dorrearen beheko lokalean egiten zituen bilerak. Dokumentazioa armairu batean zegoen, karpeta zintzilikarietan. Karpeta zintzilikari horiek kartoi bereizgarriekin zeuden ordenatuta, alfabetozko hurrenkeraz (Roneo Antigraph gidak. V.1920 modelo patentatua); letra bakoitzaren atzean, berriz, karpeta zintzilikariak zenbakiz ordenatzen ziren (Roneo sistema. Numeralpha. Roneo. m 478).

Nola eskuratu den:

Udalak lokalaren beharra izan zuenean uzteko esan zien. Baina dokumentazioa jaso ez zutenez, Kultur Gestoreak jakinarazi egin zidan ea interesik izan zezakeen. 2001eko otsailaren 5ean Zabalotegira joan eta ekarri genuen.

Hazkundera:

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.

Antolaketa:

Fondoa karpeta zintzilikarietan zegoen, gaika. Bost kaxa besterik ez direnez, sailkatzearen fondoa banatzea ez litzateke batere errealista izango eta, gainera, kontsulta zailagoa bihurtzea besterik ez litzateke lortuko. Beraz, ez da egin sailkapen-banaketarik.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta badago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza:

Gazteleraz eta euskaraz

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioa datu-base batean kontsulta daiteke, bai artxiboan, bai Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>).

2.5. Casino Vergarés

1922-1991 (0,40 m. lineal)

"Casino Vergarés" elkartearen eratzeko ekitaldia 1923ko urtarrilaren 8an izan zen, Komeniko kaleko 4. atariko 1. pisuan, egoitza izan duen tokian. Atsedenaldirako elkarte gisa eratu zen.

Nola eskuratu den:

Victoriano Larrañaga jaunaren dohaintza izan zen (2008/XII/12).

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Hizkuntza: Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioaren kontsulta eskuragarri dago Udal Artxiboan bertan edo Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>).

3. Familia artxiboak

3.1. Iturbe Eulate familia artxiboa

1407- 1899 (6 m. lineal)

Iturbe-Eulate fondoa familia batek urteetan zehar sortutako artxiboa da; Ardatz egiten duen familiari atxikitzen zaizkion maiorazkoen agiriekin sortutako fondoa, alegia. Kasu honetan ardatza Eulate familia izango litzateke eta bere kideen ezkontzen bitartez fondoa aberastu egiten da. Hemen azaltzen dugun fondoa -XIX. mendearen lehenengo herenean-Rafael de Eulate y Acedok zeukanaren zati bat da, Eulate maiorazkokoak ez direnek osatutakoa, hain zuzen ere. Hiru atal edo zati bereiztu behar dira:

1. Gipuzkoako zatia. Iturbe sekzioa da. Manuela Josefa Iturbe eta Jauregi Salazarrek 1724an Juan Francisco Alvarez de Eulate y Ochoa de Chincheturekin ezkondu zenean eraman zituen ondasunen lekuko dira.
2. Arabako zatia. Luzuriaga-Santa Cruz sekzioak osatzen du. Lehen aipatutako Juan Francisco Alvarez de Eulate Ochoa de Chinchetruk ezkontzara eraman zituenak dira. Bere maiorazkoak Santa Cruz, Luzuriaga eta Rozas-Legorreta ziren.
3. Napar eta errioxako zatia. XIX. mendean zehar Eulate etxeko maiorazkoak Naparroako edo Errioxako emakumezkoekin ezkondu ziren eta etxe horietan gizonezkoak gelditu ez zenez, emakumeek hartu zituzten. Ez zuten agiri asko eraman baina komeni da kontuan edukitzea.
 - 3.1. Acedo-Mirafuentes. Maria Luisa Acedo Castejon (1787an jaiotakoa) Vicente Eulate Tobiarekin ezkondu zenean eramandako agiriak dira.
 - 3.1. Moreda. Josefa Moreda Murua (1816an jaiotakoa) Rafael Maria Eulate Acedorekin 1840.ean ezkondu zenean eramandako agiriak dira. Emakume honek zeharkako herentzia bat ere badu; bere aitaren -Francisco Moreda Benito del Valleren-bitartez Donostiako Olozaga familiaren ondasun batzuk hartu baitzituen; aipatutako Francisco honen arreba, Andrea Maria, Jose Maria de Olozagarekin ezkondu zelako.

Nola eskuratu den:

Begarako Udalak 2000. urtean erosi zuen.

Antolaketa:

Fondoa, jatorrian, maiorazkoka antolatuta zegoen. Maiorazko ezberdinak fondoaren sekzioak dira.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Deskribapen-tresnak:

Fondoaren inbentarioa datu-basean kontsultatu daiteke. Honetaz gain, aurkibide onomastiko eta toponimikoak ditu. Udal Artxiboko web orrian kontsulta daiteke:

[www.http://bergarakoartxiboa.eus](http://bergarakoartxiboa.eus)

Familien eta euren arteko erlazioak ikus daitezke genealogiazko datu base batean.

Iturri osagarriak beste artxiboetan:

Logroñoko Artxibo Historiko Probintziala.

Bibliografia:

LEMA PUEYO, Miguel Angel. Colección documental del Archivo Municipal de Bergara. Tomo III Fondo Iturbe-Eulate (1401-1520). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007. (Fuentes Documentales medievales del País Vasco, 134). ISBN: 978-84-8419-138-4

3.2. Azcona Zuloeta familia

1696-1829 (20 erregistro)

Gehienak, Azcona Zuloeta familiaren ondasunen kudeaketa ekonomikoari buruzko dokumentuak dira.

Historia:

Manuel Maria Azcona 1833an Bergaran jaio zen. Zuloeta maiorazkoko ondasunak bere aitarengandik, Felipe Maria Azcona Zuloetarengandik, jaso zituen. Maria Luisa Eulate eta Moredarekin ezkondu zen. Maria Luisa, 1843an Logroñon jaiotakoa zen, eta Rafael Acedoren eta Maria Josefa Moreda Muruaren alaba zen. Rafael Eulate Iturbe, Inurrigarro, Monasteriobide, Jauregui eta Mirafuentes maiorazkoak zituen.

Zaintzaren historia:

Begarako udal fondoan sakabanatuta agertu dira.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Unitate dokumentalen deskripzioa eginda dago.

Iturri osagarriak Artxibo honetan:

Iturbe Eulate familia fondoa udal artxiboko web orrian kontsulta daiteke [www.http://bergarakoartxiboa.eus](http://bergarakoartxiboa.eus)

3.3. Valleko Kondea

1850-1950 (1.394 erregistro; 644 irudi; 696 positibo, 30 negatibo, beste 25 material) Valleko Kondearen bilduma dokumentuz eta argazkiz osatuta dago. Jatorrizko fondoaren lekuko txiki bat dela argi dago.

Dokumentuak garai ezberdinetakoak eta inongo irizpide gabe dohaintzan jasotakoak dira. Argazkien atala berriz aberatsagoa da, 1305 irudi daude. Euren artean paper gaineko argazkiak, postalak, siluetak, irudi estereoskopikoak, erlijio-estampak eta oroigarriak daude. Gehien agertzen den irudi-mota pertsonen erretratua da; gehienak lekua eta data Kondeak berak jarrita.

Historia:

Ignacio Murua Balzola, Valleko IV. Kondea eta Balzolako III. Markesa, Bergaran jaio zen

1863ko urriaren 10ean. Ezkondu, Madrilen 1893ko urtarrilaren 1ean ezkondu zen Maria Pilar Labayen Aranzabe andrearekin, baina ez zuten seme-alabarik izan. Kondea 1945ean hil zen eta Kondea, berriz, 1953an Errotalde jauregian (Santa Ana). Errotalde jauregia, gaur egun, liburutegia da.

Nola eskuratu da:

Urtetan zehar pertsona ezberdinak egindako dohaintzen bitartez.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Hizkuntza:

Gazteleraz eta gutun batzuk frantsesez.

Deskribapen-tresnak:

Agiriak deskribatuta daude eta irudiak garbitu eta digitalizatu ondoren deskribatu dira.

Bibliografia:

OTAZU, Alfonso de. El fotógrafo frente a la cámara y de cerca. Notas sobre el Conde del Valle (Bergara, 1863- San Sebastián, 1953). Bergara: Udala, 2016

4. Artxibo profesionalak

4.1. *Eustaquio Aguirreolea*

1960-1998 (124 irudi; 113 digitalizazio, 11 plaka)

Eustaqui Aguirreolea argazkilari profesionalaren argazkien bilduma. Bergaran egin zuen lan, 1891 - 1927 urteen artean.

Irudi gehienak bere familiaren erretratuak dira.

Nola eskuratu den:

Familiak lagata, kopiatzeko (1999).

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Irudi bakoitzaren deskripzioa eginda dago eta izen, leku eta gaietako aurkibideak ere badituzte.

Bibliografia:

EUSTAQUIO Aguirreolea: pintore eta argazkilaria/ pintor y fotógrafo. Bergara: Udala, 2000

4.2. *Toribio Jauregi*

1925-1972 (1003 erroilu negatibo, kristalezko 72 plaka, 2302 plaka plastikoak, 2517 positibo, 28 diapositiba)

Toribio Jauregi argazkilari profesionalaren argazki-bilduma. 1927-1969 urteen artean egin zuen lan. Hori dela eta makina bat gai, pertsona eta herriko bizitza eta jaietako lekukoak daude. Hala nola, pertsonen eta familien erretratuak, kirol txapelketak, jaiak. eraikin industrialak eta gerra zibila.

Nola eskuratu den:

Familiak dohaintza bidez eman zuen (2009)

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Material asko dago eta digitalizazioak egiteko garaian proiektuka landu da. Digitalizatutakoaren zati bat deskribatuta dago.

Bibliografia:

VIDARTE CHAROLA, Isabel. Toribio Jauregi: un pelotazale detrás de la cámara. Eibar:

Asociación centenario frontón Astelena, 2005

TORIBIO Jauregi "Altzeta" (1896-1969). Bergara: Udala, 2010

4.3. *Roman Larrañaga Barquin*

1960-1990 (5235 irudi; 643 positibo, 4195 negatibo, 561 diapositiba)

Roman Larrañaga Barquin argazkilari profesionalaren bilduma da. Bergaran, 1970-1980 urteen artean egin zuen lan. Izen komertziala "Foto Román" zuen.

Batez ere gertakizun politikoak (ekitaldiak, manifestazioak) eta kirol-gertakariak (futbola, motokrosa, txirrindularitza) agertzen dira. Jaietako irudiak ere garrantzizkoak dira.

Nola eskuratu den:

Udalari egindako dohaintzaren bidez 1999an.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Deskripzioa irudika edo erreportaika eginda eta kasu batzuetan digitalizatuta.

4.4. *Victor Ignacio Zubizarreta*

1900-1933 (251 erregistro)

Victor Ignazio Zubizarretak prokuradore lanetan sortutako dokumentuak dira. Esan bezala, prokuradore baten jardueran sortu eta bildutako dokumentazioa da. Besteak beste, epaitegira zuzendutako eskaerak, jaiotze, heriotza eta ezkontza ziurtagiriak, notario eskriturak, familia kontseiluko aktak, ebazpenak, autoak, adiskidetze akordioak, epaiketa zibiletan ematen diren espedienteak, aldizkariak, korrespondentzia etab.

Nola eskuratu den:

Larrañaga Olabarria familiak egindako dohaintza

Hazkundera:

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Hizkuntza: Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Dokumentuen deskribapena eginda dago

Iturri osagarriak beste artxiboan:

Epaitegietako artxiboak

5. Artxibo pertsonalak

5.1. *Juan Idigoras Irala*

1960-1998 (5955 irudi; 3698 positibo, 4146 negatibo, 1092 diapositiba, 13 plaka) Juan Idigoras Irala argazkizalearen argazkien bilduma da.

Batez ere, eraikin historiko-artistikoak, arte-lanak eta baserriak agertzen dira. Baita gertaera kulturalak ere.

Nola eskuratu den:

Udalari egindako dohaintzaren bidez, 1998 eta 2208an.

Hazkundera:

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Irudi bakoitzaren deskripzioa eginda dago eta izen, leku eta gaietako aurkibideak ere badituzte.

5.2. Jesus Urkiola

1926-1970 (1779 erregistro; 1748 irudi; 154 positibo, 1624 negatibo eta 42 dokumentu) Jesus Urkiola fondoa dokumentuz eta argazkiz osatuta dago. Nagusiki bi arlotako dokumentuak dira; batetik, 1961etik 1966ra arte Bergarako Udaleko zinegotzi izan zenekoa eta bestetik San Martin Agirreren kanonizaziorako sortutako batzordeko kide izan zenekoa.

Horretaz gain, Jesus Urkiola Lazpiur argazkizalea zen. Arlo ezberdinetako argazkiak dira: zinegotzia izan zenekoak, San Martin Agirreren aldeko batzordekidea izan zenekoa, Union Cerrajera lantegikoak eta aisialdikoak.

Nola eskuratu den:

Familiak dohaintza bidez eman zuen, beste material batzuekin batera (2007).

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Dokumentuak deskribatuta daude. Irudiak berriz, digitalizatuta daude eta kasu batzuetan deskribatuta.

5.3. Miguel Angel Elkoro Berezibar fondoa (Serafin Esnaola bilduma)

1956-1987 (3850 irudi; 177 positibo, 1426 negatibo, 2424 diapositiba) Serafin Esnaola argazkizalearen argazki-bilduma.

Parte hartu zuen edo sustatu zituen jarduera guztiak azaltzen ditu argazkietan: katekesia, San Antonio auzoko jaiak, Pol-Poleko mendi-irteerak, etab.

Nola eskuratu den: Dohaintza (2008)

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Irudi bakoitzaren deskripzioa egiteko dago; momentuz multzoka landuta dago.

Bibliografia:

ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel. Serafin Esnaola. Herrigintzaren erretratua. Bergara: Udala, 2009

5.4. Jesus Arregi

0000-2011 (521 erregistro; 38 dokumentu eta 482 irudi)

Jesus Arregiren fondoak dokumentuak eta argazkiak dauzka.

Jesus Arregiren lanbidea dela eta (familiako enpresa eraikitzailea den Construcciones Arreguin) urtetan zehar gure herrian makina bat obra eta berriztatze lanen proiektu eta argazkiak gordeta zeuzkan. Gehinak 80. eta 90. hamarkadan egindakoak.

Horretaz gain, filatelia zalea izanda Bergaran egindako erakusketa eta seiluak jaso ditu. Eta azkenik, gure herriko historiaren eta ondarearen interesagatik gai ezberdinei buruzko artikulua eta informazioa jaso ditu.

Nola eskuratu den:

Dohaintzaren bitartez.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Dokumentuak eta irudiak deskribatuta daude.

5.5. Jose Lazpiur

XX. mende hasierakoak (833 erregistro)

Jose Lazpiur, Bergarako Jose Lazpiur eta Diaz de Mendibil zapatagintza lantegiko kide zen. Horretaz gain, argazkizalea ere bazen. Berak egindako argazkietan familiako irudiak, lanekoak eta aisialdikoak agertzen dira. Interesgarriak dira, Eustaquio Aguirreoleak eta Valleko Kondeak egindako argazkiekin batera, XX. mende hasierako irudiak direlako.

Nola eskuratu den:

Familiak 2013an kopia digitalen dohaintza egin zuen.

Hazkundera:

Izaera itxia duenez, ez da aurreikusi beste elementu batzuk eskuratzeko aukerarik.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta eta erabilera baimenduta dago, indarrean dauden legeriak eta araudiak betez gero.

Deskribapen-tresnak:

Irudiak deskribatzeko daude

6. Bildumak

6.1. Udal artxiboko bilduma

2011ra arte (5760 erregistro; 5605 irudi, 152 dokumentu eta 2 bideo)

Makina bat pertsonen urtetan zehar artxibora ekarritako irudi eta dokumentuaz osatuta dago. Kasu batzuetan, argazkietan gehien bat, orijinalak digitalizatu dira eta argazkiak jabeen bueltatu zaizkie.

Bilduma honetan, dokumentu erabat ezberdinak aurkituko dituzue eta baita gai diferenteak ere; udal artxiboa aberasten dutela iruditu zaigu. Gaiak aipatzerakoan San Martin Agirre edo gure herrian izandako musika eta kultura ekintzak nabarmenduko nituzke. Kronologia aldetik ere bilduma oso zabala da. Bergarari buruzko informazio eta datu gehiago edukitzeko aukera ematen du.

Azpitarratzekoa da Kultura Departamentutik bidalita bilduma (863 irudi dira). Udal artxiboko bildumaren azpibilduma sortu dugu. Kultura departamentuak, Berrigara aldizkarian deialdi publikoa egin zuen, antzinako argazkien jabeek euren argazkien kopiak egiten uzteko eskatuz. Kulturak, Pol-Pol Argazki taldearekin hitzarmena egin zuen eta elkarteko zaletuek kopiak egin zituzten (negatibo bat eta bi positibo); lan hori 1996ko urrian burutu zen, eta bukatutakoan orijinalak jabeen bueltatu zitzaizkien. Kopien kalitatea ez da ona.

Nola eskuratu den:

Dohaintzak. Bergaratarrek ekarritako argazki eta dokumentuak. Gehienetan kopia digitalak egiten dira eta originalak jabeen itzuli egiten zaizkie

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, salbu-eta indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan

Hizkuntza: Gazteleraz

Deskribapen-tresnak:

Irudi eta dokumentu bakoitza deskribatuta daude.

6.2. Parrokietako artxiboak

1373-1989 (60 erroilu pelikula, mikrofilmak)

Begarako ondorengo parrokiak sortutako dokumentazioa: San Pedro, Santa Marina, San Andres, San Emeterio eta San Zeledonio Martiriak, eta San Prudentzio.

Parrokietako dokumentazioa funtsezkoa da genealogia eta demografiari buruzko azterketak egiteko, XVI. mendera arteko datuak aurki baitaitezke. Alderdi horretaz gain (horixe izango da beharbada ezagunena), iturri garrantzitsua da, besteak beste, erlijiotasuna, pentsamenduaren historia, nekazaritzako produktuak, jarduera ekonomikoa eta ekintza artistikoak ezagutzeko.

Historia:

Begarako parrokiak Calahorra eta La Calzadako gotzaindegiaren menpe zeuden, 1862an Gasteizko gotzaindegia sortu zen arte. Geroago, 1949ko azaroaren 2an, Donostiako elizbarrutira pasa ziren. Hemen ez dira sartzen Angiozarko San Migel eta Uberako San Paulo parrokiak, Elgetaren menpe zeuden eta.

Zaintzaren historia:

Parrokia bakoitzak bere artxiboa gorde eta zaindu du, Elizak parrokiako artxibo guztiak gotzaindegiko artxibora eramatea erabaki zuen arte; kasu honetan Donostiara.

Nola eskuratu den:

Kopiak lortu ziren Donostiako Gotzaindegiarekin sinatutako hitzarmenez. Orijinalak Donostiako elizbarrutiko artxiboan daude: <http://www.mendezmende.org/eu/hasiera.html>

Antolaketa:

Dokumentazioa parrokiaka antolatu da, eta hurrengo mailan, sakramentu liburuak (bataiatu, ezkondu eta hildakoenak) bereiztu egin dira gainerakoetatik.

Dokumentuak kontsultatzeko baimena:

Kontsulta baimenduta dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Deskribapen-tresnak:

Azaleko inbentarioa. Inbentarioaren kontsulta eskuragarri dago Udal Artxiboan bertan edo Artxiboko web orrian (<http://bergarakoartxiboa.eus>).

Originalak aurkitzeko:

Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa: <http://www.mendezmende.org/eu>

Kopiak aurkitzeko:

Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa: <http://www.mendezmende.org/eu>

Oharra:

Artxibistika aldetik ez da fondo bat zentzu hertsian, parrokiako fondoan bilduma baizik.

6.3. Eskribautzak

1512 -1871 (6.426 erregistro)

Eibarko, Mutrikuko eta Soraluzeko eskribauek sortutako dokumentuak dira. Auziak, eskriturak eta protokoloak.

Ez da fondo bat zentzu hertsian, Bergarako Udal Artxiboan "Numerías" izenpean jasotako dokumentu-multzoa baizik. Eibarko, Mutrikuko eta Soraluzeko eskribauek beren eskribautzetan sortutako dokumentuak jasotzen dira; izan ere, Erregimen Zaharrean fede emateko funtzioa zuten:

- fede emate judiziala, Alkatea lehen auzialdiko epaile arrunta baitzen.
- fede emate notariala, protokoloak eta eskriturak sortuz.

Historia:

Eskribauen funtzioa fede judiziala nahiz estrajudiziala ematea zen; hau da, auzietan eta eskritura publikoetan.

Legeria:

- Joana andrearen Errege Pribilegioa, 1513ko abuztuaren 13koa, probintzia honetako herriei eta lekuei ofizio edo eskribautza hutsak aurkezteko eskubidea aitortzen diena.
- Eskribautza-kopurua murrizteko plana, 1747an Zumaiako Batzar Nagusian aurkeztua eta 1748ko Errege Aginduak berretsia.
- Eskribautza--kopurua murrizteko plana, 1829an Tolosako Batzar Nagusian aurkeztua eta Gaztelako Kontseiluaren 1831ko abenduaren 17ko Errege Aginduak berretsia.
- 1862ko maiatzaren 28ko Notariotzaren Lege Organikoa, eskribauen fede emateko funtzio estrajudiziala eta judiziala bereizten dituena.

Zaintzaren historia:

Ez dakigu noiztik dauden jasota "Numerías" izenpeko dokumentu hauek Bergarako Udal Artxiboan. 2005ean, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmen bati esker, dokumentuen inbentarioa egin zen, herri bakoitzari zein dokumentu zegozkion zehazteko eta bakoitzari bereak itzultzeko. Ondoren, hitzarmena sinatu zen udal horietako bakoitzarekin, beraiei zegozkien dokumentuak itzultzeko. 2005ean Mutrikuko eta Soraluzeko udal artxiboetara beraien dokumentuak eraman ziren. Eibarko Udalak, berriz, 2009an eraman zituen, udal artxibo berriko lanak bukatu zituenean.

Antolaketa:

Hasteko, herri bakoitzeko dokumentuak bereizi dira: Eibarkoak, Mutrikukoak eta Soraluzekoak. Hurrengo mailan, Serapio Mugikaren sailkapen-koadroa erabili da antolaketarako. Auziak hiru taldetan sailkatu dira: zibilak, kriminalak eta betearazleak

Dokumentuak kontsultatzeko:

Dokumentuak kontsultatzeko, Mutrikuko, Soraluzeko edo Eibarko Udal Artxiboetara jo behar da.

Deskribapen-tresnak:

Inbentarioa. Kontsultagarri dago Bergarako Udal Artxiboan bertan, bere web orrian

(<http://bergarakoartxiboa.eus>), Dokuklik datu-basean (<http://www.snae.org>) eta udal bakoitzeko artxiboan.

Originalak aurkitzeko:

Eibarko udal artxiboa: http://www.eibar.eus/eu/udala/sailak/artxiboa?set_language=eu Mutrikuko udal artxiboa eta Soraluzeko udal artxiboa.

Iturri osagarriak beste artxiboetan:

Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa (Oñati): <http://oinati.gipuzkoakultura.net/eu.html>

ERABILTZAILAILEEN KUDEAKETA

1. Udalak atal honekin lotuta dituen araudiak:

- Kontsulta gelako araudia
- Urtero onartzen diren tasak

2. Erabiltzaileak

Lehenengo gauza erabiltzailea identifikatzea da. Erabiltzaile **mota** ezberdinak daude:

- barrukoa, hau da, Udaleko langilea dena. Altan emanda dago
- kanpokoa

Erabiltzaileak **kanal** ezberdinak ditu eskaerak egiteko:

- bertan artxibora badator. Lehenengo aldia den galdetu. Baiezkoa bada, erabiltzaile fitxa betetzeko atera
- e-mail bidez (artxiboko web orritik abiatuta www.bergarakoartxiboa.eus). Artxiboko erabiltzaile datu-basean altan emanda dagoen konprobatu. Ez badago, fitxa bete. Erabiltzaileen fitxak ordenadorearen ezkerrean dauden kaxoietan daude. Berriak atera behar badira [Y:\Modelo eta plantilak\Modeloak formularioak](#)

3. Kontsultak

Erabiltzaileak **kanal** ezberdinak ditu kontsultak egiteko

- bertan artxiboan. Kontsulta orria aterako zaio bete dezan
- e-mail bidez. Kontsulta orria guk beteko dugu

Kontsulta orriak ordenadorearen ezkerrean dauden kaxoietan daude. Berriak atera behar badira [Y:\Modelo eta plantilak\Modeloak formularioak](#)

Kontsulta eskaera oso orokorra bada artxiboko datu-basean edo artxiboko web orrian www.bergarakoartxiboa.eus bilaketa egin behar da eta erabiltzaileari lagundu egin behar zaio.

Artxiboan dagoen ordenadore librean artxiboko OSOA datu-basean sarbidea eman “ikerlari” profilarekin; bilatzeko, kontsultatzeko eta aukeratzeko (ez erregistroak aldatzeko edo sortzeko).

Hala eta guztiz ere ezinezkoa bada, artxiboko langileak bilaketa egin eta emaitzaren zerrenda eman edo bidaltzen da.

Kontsultatu nahi denaren arabera, aplikatu beharreko **legedia**

- Dokumentu historikoak. Agiriak 50 urte baino gehiago baditu Dokumentu Ondarea da. Beraz dagokion legeria aplikatzeko
- 50 urte baino gutxiago izanez gero dokumentuak administratiboak dira. Beraz dagokion legeria aplikatuko da. Kasu horietan Departamentu bidaltzaileak kontsultatzeko baimena eman behar du.

Datu pertsonalen babesaren eta informazio eskubidearen talka izango balitz, idazkariari txosten juridikoa eskatu.

4. Dokumentuak atera

Kontsulta orriarekin depositura joan dokumentuen bila. Kaxa asko kontsultatzeko ekarri behar badira, karroarekin igogailutik joatea komeni da (igogailuan satora joateko behar den giltza udaltzaingoa eskatu). Kaxa osoak ekarri gora. Erabiltzaileari espedienteak banan banan atera.

Dokumentu historikoak direnean eta espedienteetan solte badaude, eman aurretik pisatu.

Jasotzeko momentuan berriz pisatu.

Erabiltzaileak bukatu ez badu eta berriz bueltatzeko asmoa badauka kaxak materiala gordetzen den gelan uzten dira. Bestela, kaxak berriz ere bere tokira eramaten dira.

Kopia eskaera

Kasu batzuetan ikerlariak kontsulta web orrian egin du eta zuzenean kopiak eskatzen ditu.

- bertan artxiboan. Kopia eskaera orria aterako zaio bete dezan eta indarrean dauden tasak zeintzuk diren azalduz.
- e-mail bidez. Kopia eskaera orria guk beteko dugu eta aurrekontua bidaliko diogu. Ontzat ematen duenean eta ordaindu ondoren kopiak bidaliko zaizkio. Ordainagiriaren kopia batzuetan

e-mailez bidaltzen dute eta bestela diruzainak abisatzen digu. Kopia eskaera orriak ordenadorearen ezker aldean dauden kaxoietan daude. Berriak atera behar badira [Y:\Modelo eta plantilak\Modeloak formularioak](#)

Kopiak paperean edo digitalean egiten ditugu, eta onartutako tasak kobratzen dira. Kopiak digitalak direnean metadatuak eranstean zaizkie.

- Jatorria: Bergarako udal artxiboa
- Signatura
- Udaleko armarrria
- Argazkien kasuan. Egilea eta fetxa

Berezitasunak:

- Argazkien kopiak

Kopiak argazkienak direnean, eskaera orria berezia da. Bertan, argazkien erabilera pertsonalerako den edo publikatzeko den adierazpena jasotzen da. Erabilera bakarrerako baimena da. Erabilera publikoa bada baimena dekretuz egiten da.

Kopiak paperean direnean eta bidali behar direnean errenboltso bidez egiten dira ordainketak. Kopiak digitalak direnean eskatzaileak pendrive bat ekartzen badu, bertan sartzen zaizkio; bestela wetransfer bidez bidaltzen dira.

- Plano handien kopia digitalak.

Gure eskanerrak DINA4 tamainara arte digitalizatzeko gaitasuna du. Originala handiagoa bada fotokopia dendara eramaten ditugu; erabiltzaileari artxiboari kobratzen digutena kobratzen diogu.

5. Maileguak

Dokumentuak artxibo zerbitzutik irtetzen direnean, dokumentuak modu egokian gordetzen eta erabiltzen direla ziurtatu behar da. Maileguen kasuan beraz, dokumentuen ardura ere ematen da. Maileguak bi modutakoak izan daitezke.

- a) Dokumentuak Udaletik irtetzen dira. Batzuetan artxiboko bertako funtzioen ondorioa da; hala nola, dokumentuak eraberritzera edo digitalizatzera bidaltzen direnean. Kasu horietan, lan teknikoak egiten duten enpresek euren lokalen segurtasuna eta egokitasuna bermatuta dutela ziurtatu behar dute. Dokumentuak eramateko garaian, horretarako prestatutako idatzia sinatzen dute: zer eramaten duten, noiz, nork eta zertarako adierazten da. Ale bat enpresak eramaten du eta bestea artxiboan dagokion espedientearen gordetzen da.

Beste kasu batzuetan berriz, aldi baterako erakusketaren baterako eskaerak egoten dira. Eskatzaileak dokumentuak modu egokian erabili eta erakutsiko dituela ziurtatu behar du. Maileguaren epea zehaztuko du eta dagokion segurua ordaindu duela ziurtatuko du. Aurrekoak kontutan izanda, txosten teknikoak egiten da eta hala badagokio Gobernu Batzordeak mailegua egiteko erabakia hartzen du.

Dokumentuak jasotzera etortzen direnean, goian esan bezala, prestatutako idatzia sinatzen dute.

- b) Espedienteen jatorrizko departamentuetara egindako maileguetan, dokumentu administratiboak direnean, artxiboan kontsultatuz gain eraman nahi izanez gero, mailegu orria betetzen dute.

GAI GARRANTZITSUAK

(artxiboko sailkapen koadroan beltzez dauden serieak)

1. Dokumentuen eta informazioaren kudeaketa sistemaren garapena eta inplantazioa
2. Lekua. Artxiboko depositua beteta dago. Ez daukagu lekurik; ezin ditugu transferentziarik jaso. Dokumentazioa Departamentuetan pilatzen ari da.
3. Artxiboko web orriaren berriztapena. Bergarako udal artxiboak 2008an egin zuen web orria (Autonomia Erkidegoko lehen udal artxiboa izan zen). Honez gero zaharkituta dago, web orriak erabiltzen duen aplikazioa atzera gelditu da. Eduki gehiago sartzeko dauzkagu, sarbide gako gehiagorekin (puntos de acceso a la información) eta modulu gehiagorekin.
4. Artxiboan jasotako transferentziak. Bidali nahi den dokumentazioaren inguruko gabeziak: espedienteak itxi gabe, espedienteak identifikatu gabe, kopiak. Eta horretaz gain dokumentazioari buruzko informazioaren kalitate gabeziak: normalizazio falta, informazio eza, formatu ezberdinak...